

**BEDERATZIURREN**

**== BATZUEK ==**

**AITA JOSE ANTONIO UGARTE**

**FRANZISKOTARRAK ARGITARATUAK**

**Bea diran baimenakin**



**TOLOSA-N**  
**Navarro, Del Teso y Comp.<sup>a</sup>**  
**1928-garen urtean.**

84



H-8619

ATV


R-36269

18.884





*Laurent*





**JESUSEN BIOTZ MAITAGARIAREN**

**BEDERATZIURENA**



*Gurutze Santuaren, etc. Nere Jesukris-  
to Jauna, etc.*

*Gogartea.*

*Jesusen Biotzaganako Oneraspena txit ona eta  
mesedien iturri ugaria da.*

Jesusen Biotzaganako oneraspena iñoiz ere agortzen eztan Jaunak gizonai egiten dizten mesedien iturri bat da. Jaiera onetan ipiñi ditu Jesussek espirituko ondasun guziak. Iñoiz ere ustuz ezin ditekean ondasun-tegi bat egiñik jañi du bere Biotza. Eta ezaten digu: Atozte neregana, ta artuko dituzute bear dituzuten grazia, laguntza, ta mesedeak; ¿Jaungoikoagana oso ziaro biurtzeko erabakitasuna eta grazia bear dituzute? Jesusen Biotzari sinispen, edo itxaropen aundiaz eskatu zaiozkazute eta berez eskuratuko zaizkitzute pekatuenganako gofotoa, Jaunaganako maitetasuna, eta oiek eskatzen duten biziera on-ona egiteko indar eta erabakitasuna.

## *Jesusen Biotzaren gorapenean*

Biotz txit maitagaría, ain biziro maitatu, goratu eta antzeratu zinduzen Kantalizioko San Felixekin zuri eskeintzen naitzatzu. San Franziskoren seme santu onek txit ondo erakusten digu, Zu zerala graziako iturri ugaritsua; bada eman zión mirari afigariak egiteko doaia, era guztietako eritasun, eta gaitzak sendatzekoa; basapizti asereak eskuratzekoa, itxaso eta suari agintzekoa, ilai bizia biurtzekoa, eta izakien gañean aginte eta nagusitasun aundi bat edukitzekoa. Baita ere, Jesus, Aur baten itxuran berari agerturik eman zión Zeu bere besoetan arturik lantzatzeko atsegin berdin gabea. Eregutzen dizut, O Biotz samur ta santua! Arena bezela nere anima ere zeruko doaiez aberastu zadazula. Jesusen Biotz gurtgaría, esker gozoak ematen dizkitzut eman dizkidazun doai ta graziakgatik.

Orain Jesusen bost zaurien izenean bost Aita-gure ezezatu, eta egunero ufengo otoiz onekin azkendu.

### *Egun guztietan azkenian irakurtzeko*

#### *Otoitza*

Nere Jesus maitearen Biotz gurtgaría, ni iraki ezereza banaiz ere, ematen dizkitzut zure naitasun, edo gogoaren agindupena nere gorputz ta anima, nere bizia, nere lanak, nere atsegiñak, Zu maitatu, goratu ta gurtutzeko, zuri atsegin emateko izan ditezela nere gorputz eta animatik sortzen diran egintza edo akto guztiak.



¡ O Biotz atsegiña ! Zuregan jaia daukat nere uste guzia. Zure gogotoa eztanik, ez det nai. Nere zoriontasun eta atsegin guzia zure mirabetza apalean bizi eta iltzean dago. Indazu mesede ori, eta *bederatzi-ur*en onetan eskatzen dizudana, (nere animaren kaltean ezpada).

## Bigarren eguna

*Gurutze santuaren, etc. Nere Jesukristo Jaina etc.*

### *Gogartea*

*Jesusen Biotza beartsuaren ispilu bizia da.*

Munduaren Erosle edo Salbatzailea, beartsu jaio, bizi ta il zan, lurreko ondasunak utsean edukitzen eta gure zoriontasun guzia animako ondasunetan ipintzen guri erakusteko. Estalpe zar batean jaio zan, trotxatxo batzuetan bildurik estrabi pobre batean, lasto puskatxo baten gainean, etzan zuten. Bere bizi guztian limosnaz, edo bere eskuetako lanaz mantendu zan. *Iñoiz ere bere gauzarik izaten etzuela.*

Oregatik esaten zuan: «*Aseriak beren zuloak badauzkate, aireko egaztiak ere bai beren kabiak, baña gizonaren Semeak bere burua non etzan eztauka*». Aldareko Sakramentu Santuan oraindik beartsuagoa da: bere izakiak jartzen dioten bizilekuan bizi da. Arloteri bizian dauden zenbait eleizatan, iñolako apainduri gabekoetan dago gau ta egun, jai eta aste. Ejenplo onen zein bear geran gure egunetan, aberastu nai

aundia eta Jesusen pobrezari jaraitzeko gogo txikia dagoanetan ! Aldera gatzaizkan Jesusi, sar gaitean bere Biotzean eta egin dezagun berak egin zuan bezela.

### *Jesusen Biotzaren gorapenean*

Jesus guziz maitagarria, Albernia-ko Juan Doatsuak, beartasun ontan alako berotasun aundiaz maitatu zinduzen, non zure bularreko zaurian bere españak jartzeko mesede aundia egin zion. Eta bera etxe guziz aundi eta aberatseko semea izan aŕen, bere gorputzari janaritu eta jazteko bearekoa zuana askotan ukatzen zion, eta zenbat eta beartsuago ikusten zuan bere burua, orduan ta pozagorik arkitzen zan.

¡ O Jesusen Biotz samurra ! Franziskoren seme bikain, zere mirabe leial oni nai diozunagatik zu maitatzeko eta zeroŕek erakutsi zizkidazun lan santuak egiteko laguntza ta grazia eskatzen dizkitzut.

*Eskaria:* Jesusen Biotz gozoa, beartasunaren ispilu bizia, maite zaitut, gurtutzen zaitut eta betiko zure mirabe artu nazazu; Eta bederatziurŕen onetan eskatzen dizudan mesedea iritxi zadazu.

*Jesusen bost zauriei bost Aita gure, eta bukaerako otoitza lenengo egunekoa.*

## Irugañen eguna

*Gurutze santuaren, etc. Nere Jesukristo Jau-  
na, etc.*

### *Gogartea*

*Jesusen Biotza eramantasun edo pazienziaren  
ispilu bizia.*

Gure bizia etengabeko naigabe, negar ta samintasunezko kate bat besterik ezta Dembora, suertealdi, ordu, puntu ta une guztietan, indařak eman eta gaitzak berak, guretzat onak balira bezela begiratu, ta artzeko, birtute baten bear gera, eta doai, edo birtute au, *pazienzia da*. Birtute onen ikasbide zein aundi, eta goratuak Jesusen Biotz gurtgañiak ematen dizkigun! Jesusen Biotz maitagañi oni, ez bear, atsekabe ta samintasun guziak erabatera eraso ziotela dirudi, gorputzeko miñak, txirotasun edo pobrezak, iñork ezertan ez edukitzea, gose, egañi, gezuřezko asmakari, golpe, eñi guziaren iseka, edo burla lotsagañien artean, lapur biren erdian, *urkamendi* lotsagañian bizia ematea: bařungo iluntasun ta bildurikara, Judasen saldukeria, Pedroren ukamena, bere ikaslien igeska, bere Ama gurutzepean ain atsekabetua ikustea, eta bere odolaz erositako ainbeste animaren galera. Atsekabe mota abek guztiak, era batera bezela, sartzen ziran bere Biotz gozo ta maitagañiari atsekabe ta samintasunez gañez eragin nairik, baña alferik; danak eramán zituan batere espa ta keja barik; pazien-

ziarik aundienarekin, esanaz Aita zerukoari:  
*Egin bedi zuk nai dezuna, zure borondatea.*

### *Jesusen Biotzaren gorapenean*

O Biotz samur eta amodio utsa zerana! eskeintzen dizut nik nere. Aita San Franziskoren seme Senako Bernardino Doatsuak, gizonen gezuritzeko asmazio txar ta gaiztakeririk aundienak zure izenean, zuri atsegin emateagatik, guztiak pazientzian pozik eramaten zituan bezela, nik ere emendik auffera nere atsekabeak eramango ditut. Badakitzu zein gauza samiña ta zaila dan gure aragiarentzat orrelako iseka, burla ta atsekabetasunak eramatea, baña zure amorez, zuri ta San Bernardinori jaraitzearen oretan egingo det alegiña, eta zuk indazu orretarako bear detan indar eta laguntza.

### *Eskaria:*

Nere Eroslearen Biotz gurtgaría, erakutsi zadazu eramankizunak Zure amorez eramaten, eta indazu zuk erakusten didazuna, Santuak egin zuten bezela egiteko gogo.

*Lenengo egunean bezela bost Aitagureak eta azkeneko otoiza.*

### **Laugarren eguna**

*Jesusen Biotza, garbitasunaren ispilu bizia*

Jaungoikoaren Someak, mundua zuzentzera

zetoñenak bezela, beste edozein bizibide edo estadu baño garbitasun edo birjintasunekoa naiago izan zuan, santuena, edeñena eta bere bear gaiak betetzeko egin bear zituan lan, egiaz jaungoiko-  
tiak, egiteko, munduan ain zabalduak dauden aztura, ta oitura galduen sustrai ta aragiaren atsegin lizunetatik gizonak urutiratzeko, berarizko ta egokiena bezela bera dalako.

Bere Ama, Birjiña guztien artean garbiena izatea nai izan zuen: bere Aita ordekotzat ere, gizon garbi eta birgin bat artu zuan; bere ikasle maitetzat, gizon gazte garbi ta birjin bat aukeratu zuan. *Bera garbitasun aundiak inguratzea nai zuan; aregatik Bera Sakramentuan erabili bear duten bere ministro ordenduak, Sacerdoteak, ezkondu gabeak izatea nai du. Sar gaitean bada Jesusen Biotz gozo ta garbiaren barun-barunean eta garbitasuna maitatuko degu.*

### *Jesusen Biotzaren gorapenean*

Alkantarako San Pedro, Franzisko Doatsua-  
ren seme sonatua, Jaungoikoaren Semearen be-  
tiko sorteoia kontzaten duan Ebanjelioa ira-  
kurtzean, Jesusen Biotz gurtgafiarenganako mai-  
tasunean bere biotza irazekirik, Jaungoikoagan  
gozoro-gozoro kordegabetu ta airean txit goian  
ikusit zan; eta geroenean Jesus Sakramentua  
zegoan aldarearen oñean geratu zan. *Nere Sal-  
batzale txit maitagarria, eskeintzen dizut nere  
biotza, Aingeruen garbitasunaren gizakoa izan  
zuan nere mirabe Alkantarako Pedro Doatsua-  
renarekin batian.*

*Eskaria:*

O nere Salbatzailearen Biotz gurtgaría, áren egizu, ni zure amodio uts-utsa izatea, eta biotz guziak zure alabantzetan urtutzea.

*Bost Aitagureak eta azkenengo otoitza lenengo egunean bezela.*

**Bostgarén eguna**

*Gurutze Santuaren, etc. Nere Jesukristo Jau-na, etc.*

*Gogartea*

*Jesusen biotza. Jaungoikoa goratu ta aintzatzeko zaletasunaren izpilu bizia da.*

Ondasun guztiak, naiz sortzez ditugunak, naiz goitik datozkigunak, Jaungoikuagandik, bere izatez neurí gabi jakintsua, ona, guzia dezakeana, zuzena santua, erukitsua, gizonen gurutze, begiramentu eta áreta guziak bakañik Berazi zor zaizkion argandik datozkigu. Au guri erakusteko Jaungoikoaren Semea agindupekoaren itxura arturik, bere Aitaren aúfean ezer-eztu zan Aita goratzeko. Au bera erakusten digu Aldareko Sakramentu txit santuan. Eri aundi eta aldeñietan, baster guzietan, Judean, eman zituan ikasbideak berak sagrañiotik beritzen dizkigu. Jesusek guzia Jaungoikoaren gorapenera egin zuan bezela, guk ere guzia beraren gloriarako egin bear degu. Geron biotz guziaz maitatu, gurtu, ta bedeinkatu bear degu Jaun au, eta geron esan-egiñakin bes

teak ere bera ezagutu, bedeinkatu, ta gurtutzera mugierazi bear ditugu.

### *Jesusen Biotzaren gorapenean*

Santa Koletak, Klara Doatsuaren alaba sonatu onek, bere biotza Jesusen Biotzaren erara ipiñi zuan. Bien biotzak bat bezela ziraden. Bada Jesusen zaletasuna, Jesusen maitasuna, edo amodioa beste zaletasun, naitasun, ta amodiorik etzuan Santa onek. Ezgaitu bada aritu bear jakiteak al zituan bide ta neurri guziak artzen zitula Jaungoikoa gurtutzeko, ta besteai gurtuerazitzeko.

¡O Jesusen Biotz gozoa! ontzat ar zazu nere biotza Santa Koletarenarekin batera zeureganako maitetasunean geroago ta geiago irazekirik, geroago ta anima geiago ekañi ditzadan gure Egile Jauna ezagutu ta gurtutzera.

### *Eskaria:*

Jesusen Biotz txit gozoa, añen zure graziaren indañez egizu nere anima Jaunarenganako maite-tasunean urtutzea.

*Bost Aita gure, ta azkenengo otoitza lenengo egunean bezela.*

## Seigaren eguna

*Gurutze santuaren, etc.*

*Jesusen Biotzak gu zeruratzeko egañi aundia dauka.*

Jesusen Biotzarentzat gizona da Jaungoikoren izaki agiriko guztien garaiena, eta Jaunonek ardurarik aundienaz begiratzen diona. Gizonagatik mundu onetara etorri, eta gose, egañi, irain, atsekabe ta miñen artean, lapur biren erdian gurutzean il zan, gure animak bere odolak baño geiago balio bazuan bezela, bere odol guztia, gure animen zorak ordaintzeko, pozik eman zuan; gu zeruratzeagatik guztia. Maitetasun ori bera erakusten digu Aldareko Sakramentu txit santuan. Galde daiogun berari ia nundik sortzen dan emeretzi gizaldi abetan egiten zaizkan aintbeste txarkeri itxusi, eta irain mingañi eramateko pazientzia, eta munduaren baster guzietan aintbeste mila aldaretan bere gogoz presondegian sarturik egotea? eta erantzungo digu «Zergatik neretzat animak zeruratzea da beañoa». Au da nere egañi guzia, animak zeruratzea.

Animak salbatzeko egañi eta lanetan jañaitzen diogu Jesusi? bere Biotzaz nai duana, nai degu? berak bezela oñetan aldeguneraño lan egiten degu? Begira dezagun ongi.

*Jesusen Biotzaren gorapenean*

Jesusen Biotz maitagaña, Jesusen Mariana



Paredes doatsuak ainbatean maitatu nai zinduzket, eta zure maitetasunez lagun urkoen onerako, beren animen salbaziorako, ala bear bada, bera nekatu zan ainbat nekatu nai nuke. Irugañen Ordenako emakume aundi au lore bat, fruta bat ikusita, Jesusen Biotz gurtgañian pentzatzean, gozotoro kordegabetzen zan. Sañitan aditzen zitzaion deadar egiten. ; A nere Jesusen eskuiko saietsa ! ; A nere maitearen zaietza ! Eta bere eñitañak izuñi eta lur ikarakin gaizkitu ziranean, berengana eñuki ta kupitasunak beren alde al, zuen guzia egitera eraman zuan. Eta zuk Biotz urikaltsua, Irugañen Ordenako Doatsu aundi onen karidadezko zeregiñak, zeru eder betikoarekin saritu ziñiozkan. Bete nazazu bada ni ere, jauna, lagun ur koarenganako ongi nai aundi batekin, berari jañaituaz egunen batean zuregana iristeko.

### *Eskaria:*

Jesusen Biotz gozoa, eñukitu zaite guzaz.  
*Bots Aitagureak, etc., lenengo egunekoak.*

### **Zazpigañen eguna**

*Gurutze santuaren, etc.*

*Jesusen Biotzak gure alde opatu edo sakrifikatutzeko gogoa du.*

Ongi nai eta amodioaren ezaupiderik onena maitearen alde sakrifizio aundiak eskeintzea ta egitea da.

Orain bada, zer neke etzituan artu Jesusek gugatik? Aberatsa zana beartsu egin zan: guzirikako eskua zuena, aurtxo egin zan: gure zor ta atsekabeak bere gain arturik, bere odola ta bizia gugatik eman zituan. Zenbat opa, sakrifizio, sakramentu txit santuak ez ditu egiten amodio ta onginaia guri erakustearen? Beti gure artean egoteagatik sartzen da Sagrarioan. Gau eta egun an dago guri bere mesede ta grazi ugariak ematen, eta Berari txarkeriak egitera eleizara dijozenakgatik, berakgatik, Aita zerukoari eřeguka dago. Beraren gureganako maitetasuna guri mesedeá egiten benere aspertzen ezta. Orain bada arazoizko gauza da, Kristabaren bizitza Jesusenaren antzekoa izatea. Jesusenak gera, berarekin gauza bat bezela bagera, berarekin opatu edo sakrifikatu bear gera. Eta Jesusen sakrifizio aundia begien aurrean ikusita, sakrifizio onetarako ¿ nor atzera ta igũinka egondo da?

### *Jesuseu Biotzaren gorapenean*

Jesusen Biotz txit ongilea, adoratzeko zaitut eta Montefalkoko Santa Klararekin batera nere burua opatu, edo sakrifikatzeko gogoa eskatzen dizut. San Franziskoren alaba Santa aundi onek, sakrifikatzeko zeukan gogo aundiagatik merezi izan zuan zure nekaldi edo Pasioko tresna edo instrumentuak bere biotzean, bere aragiz milagro egiñak edukitzea: eta gaurdaneraño irauten diote aragizko tresna miragaři aiek, eta berekin erakusten digu Santak guk ere nola maitatu bear ditugun Jesusen Nekaldi eta animen salbazioa.

## *Ezkaria*

¡ O Jesus ! nere maite eta jabea, zure gorape-nari dagokion edozein sakrifizio pozik egiten du-tenakin batu nazazu.

*Aitagureak eta bukaera lenengo egunean be-  
zela.*

## *Zortzigañen eguna*

*Gurutze santuaren, etc., lenengo egu nean  
bezela.*

## *Gogartea*

*Atsekabe ta ezbeařetan zer egin Jesusen Biotzak  
erakusten digu.*

Mundutařak gaiztakerien artean, iñolako ga-leragabe bizi nai dute: baña Eleizaren seme-alaba askok egiten duten kristau bizitza egiaz-koak lotsaz betetzen ditu. Onegatik egiten dute onelakoen bizieraz fařa eta burla, itzez edo obraz gaizki erabiltzen dituzte, Jesus beraren demporakoak erabili zuten bezela: bada bere ongite eta mesedeen ordañez esker beltz itxu-siak egin eta bere mirarien ordañez añaneko eta madarikazioak botatzen ziozkaten. Bizitzan ain-beste geřa ematen zioten: eta Sakramentu txit santuan, eta bere jařailetan munduaren azkenen-go eguneraño emango diote. Gure senipartetzat

gurutzea utzi zigun eta berak bezela guk ere au eramatea nai du. Berak bezela, txarkeria egiten digutenentzat españetan bendizioak, eta biotzean ongina eta amodioa guk idukitzea nai du. Jesusen Biotzak gogoraerazitzen diguna au da, eta guk au egin bear degu.

### *Jesusen Biotzaren gorapenean*

Nere Jesus laztana, zure mirabetzara pozik jartzen naiz eta Bautista Barani Doatsuarekin zure Biotz gurtgarñiak nai duen guzira jartzen naiz. Zure Biotzak gureganako maitasunez eraman zuan guzia aietaz begiraturik, prinzeza aundi onek zure nekaldi, edo pasio beltzarenganako zaletasun eta maitetasun aundiak artu zituan. Onegatik nornai ikara lezakean penitenzien azpian zeukan beti bere gorputza; onegatik naigabe, atsekabe ta gurutzez samindua izan zedila bere bizi guzia eskatzen zuen. Onegatik zure nekaldiko samintasun latzetan berari parte emateaz poz ta atsegin aundi bat eman ziñion. Baña zer burla, zer neke jario beltzak sufritu bear izan zituan zure mirabe leial onek! Bere aitak berak, iñorekin itzik egin ezin zezakean eran, leku itxi batean, presondegi batean bezelatsu, gogorki minberatu zuan.

Nere Jesus laztana, aien indazu *Santa Klaren alaba santa onen irabaziak* zure estutasun lañi naigabe ta samintasunak gogoan erabiliatz, Zure Biotzaren etzaiakgandik datozkidan burla ta atsekabeak, eiaz ta pozik eramateko indaia.

## *Eskaria*

O nere Jesusen Biotz gozoa ! aŕen egizu zure nekaldi samiñakgatik nik zerurako asko irabaztea.

*Aita gureak eta bukaera lenengo egunean bezela.*

## **Bederatzigaren eguna**

Gurutze santuaren, etc. Nere Jesukristo Jau-na, etc.

## *Gogartea*

Erljioa utsean edukitzeak, zein aŕigari zabal-tzen duan gaitzerako griña, eta zein auŕera di-joan: eta dotriña gaizto galgariak zenbat auŕera-tzen duten ikusirik, biotza erori eta itxaropen gazia galdu zaien amaika anima bildurtiegi gure egunetan badira. Eŕeinuak Jesusen-Biotzaz zer ikusirik ez dutela esaten dutenean, aldentzen zaie oiei Biotz au, poz aundiagoarekin bera gur-tuko dutenetara juateko. Beste denbora batean, Kartagon esta Hiponan San Zipriano eta San Agustín bizi ziranean, Jesusen Biotza ezagutu eta adoratzan leku aietan; baña orain beste erakusle, eskola ta dotriña batzuek dabilta an eta beste toki askotan; andik aldendua bezela arkitzen da Jesusen Biotzo, berari zegokion be-zela maitatzeari berak auŕetik utzi ziotelako.

Gaurko egunean emen ikusten diran gaiztake-riakgatik ¿guri gertatuko ote zaitu beste ainbeste?

Ez Jesusen Biotz gurtgarri au benaz maitatu eta gurtutzen badegu, beraganako jaiera eta maitetasuna baster guzietan erakutsi, ta zabal-tzen badegu, gu fede bizi ta alegin guziarekin ori egiten saiatzen bagera, bein ere ezta alden-duko bera gugandik, biurtuko ditu pekatariak beraganontz, eta zeruko Aita sekulan baño goratuago, alabatu eta gurtuago izango da.

### *Jesusen Biotzaren gorapenean*

O Jesusen Biotz txit santua, Aingeruen betiko atsegiña, gizonen itxaropena, ona emen non naukazun zure maitetasunaren indar eragileak zureganatuta.

Nere biotza zuri eskeintzera natorkizu: eta aŕen ar zadazu nere Aita San Franziskoren irabazi aundiakgatik, bere biotz maitakoŕarenagatik. Bada, Santa Margarita Alakokerik adierazi ziñionez, Santuen biotzen artean zurearen antze-koena berea izan zan.

Bederatzi-ur̄en onetan aitatu diran Santuak eta Koloniako Serafin Migelina, Antiguako Maria, Matinengoko Magdalena. Jesusen Biotzeko Serafina eta Agredako Maria Doatsuak bezela maitatu nai zaitut: Jesus eta Mariaren izeneko Modestinok, Franzisko Maria Kanperzek, Maria Anjela Austertx'ek, Gurutzetuaren Maria, Koadoguoko Antonio Mariak, eta Pontedezineko Klara Isabelak gurtu zinduzten bezela gurtu nai zaitut. Kristau dotriña zabaltzeko Erlijioa ipiñi zuan San Joan Bautista La-Salek. Ama Marga-

rita Klementek, Asisko Klara eta gurutzeko Juana Maria Robertok emango zizkitzuten gogo bero, eta biotz gozoaz zure maitetasun, eta mesede asko ta aundiakgatik esker ugariak eman nai dizkitzut. Askenik abek eta beste ainbeste ta ainbeste beren. Aita San Franziskoren seme alabak egin zuten bezela, Zure mirabetzan, Zu maitatu eta gurtutzen eman nai nituzke nere almen, bizitza eta naizen guztia, Zurekin batua, beti etengabeko laztan gozo batean bezela, nai det bizi, il eta zeru ederean sartzea.

Baita ere Jesusen Biotz ain ongilea, *Bedertziuren* eta il onen bukaeran benaz eskatzen dizut eri onetako *Animazai, ta Apaiz* guztiak bedein-katu ditzatzula eta *Espiritu Santuaren zazpi Doiak beren animetan baru-barurano sartu daiez-katzula, beren ta eritar danon animak zeruratu bitzaten.*

Baita ere zuri izkindu edo Konsagratuta dau-den *San Franziskoren iru Ordenak* indartu, eta bere seme alabak baster guzietan ugaldtu ditzatzula eregutzen dizut, orain artean bezela auera ere Asisko Serafin zaurituaren semeak goratu eta gurtu zaitzaten.

Eskaria: Aita San Franzisko, Jesusen maitatzale txit irazekia, eregutuzazu nigatik.

Nere Aita Franzisko Santua, Jesusen Biotzak tiratutako dardo batez biotzean eritua, eregutuzazu nere alde. Nere Aita San Franzisko doatsua, Jesusek bere Biotz txit gurtgariaren ispilu bizia bezela gure begien auran ipintzen zaituena, eregutuzazu nere alde.

*Aitagureak, eta, lenengo egunean bezela.*

**Asisko San Franziskoren Irugañen Ordenakoak Jesusen Biotz gurtgañari egin deioketen izkindutze edo Konsagrazioa.**


¡ O nere Jesus ! Zure aurrean auzpezturik, naitzen guzi au Zure Biotz Jaungoikotiari ematen nazazio egin dizkidatzun on eta mesede guzien ezagüera ona Zuri agertzeko. Al nezakean ongien ordaindu nai nituzke nik egin dizkitzudan, eta gañerako pekatariak munduaren azkeñeraño egingo dizkitzuten bidegabekeri, eta txarkeri itxusi ta mingañiak. Maite zaitut, ene Jesus maitatzen etzaituzten guztien izenean. Gurtutzen zaitut, gurtutzen etzaituzten guztien ordez.

Goratzen, alabatzen eta gurtutzen zaitut, Zu iraunda eta samintzen zaituzten guztiakgatik. Eta gañera maite zaitut, goratzen, aintzatzan, adoratzan, eta gurtutzen zaitut Aita San Franziskoren Erlijio guztiarekin batean, denbora berean eregutuz baita ere Aita San Franziskoren Ordenak suerte ona izan dezan. Zure *mirabe*, gure Aita San Franziskori, agindu ziñion bezela, Ordena oni munduaren azkenerarte iraun erazi zaiozu. Añen eutzi zaiezu adoretzu zure Esposalaztan Eleizari eta bere Buru-nagusi, zure ordekoari, eta len bait len eman zaiezu beren etzaien kontra garaipena.

Añen onez artu itzatzu ¡ O Biotz santua ! Nere asmo eta gogoak, nere zale ta naitasunak, nere borondatea, nere bizia, eta guziak batera bildurik bezela, ona non daukazun Liburu santuen bi-



tartez eskatzen didazuna : ; *Nere biotza !* Geiago  
ezin eskeñi negizuke. ; Ai ni, nere antzeko gu-  
zien jabe banitz ! diran guziak, beren Jabeari  
bezela ; Zuri ezkeintzeko !





PRAGAKO JESUS AUÑAREN  
BEDERATZI-UÑENA.

*Gurutze Santuaren, eta Nere Jesukristo Jauna etc.*

*Egunero asieran irakurtzeko otoitza*

O Pragako Aur Jesus miraritsua ! Maite zaitut biotz biotzetik, eta eskerak ematen dizkitzut Zure mesede guztiak gatik. Damu det, orain arte ain eskergabea izan naizelako eta auñerakoan zintzoagoa izateko asmo erabaki bat artzen det. Zure Oñetan apal-apat auzpezturik nere anima, gorputz ta izate guztia, zure aintza edo onorea geitzeko eskeiñtzen dizkitzut, eta zuk, Aur bedeinkatua, *Bederatzi-urēn* au ongi egiteko eta bertan eskatzen dizudan mesedea iristeko grazia indazu. Nere eskariak ontzat artu zaizkidatzu, eta nere animaren kalterako ezpada ezkatzen dizudan mesedea iritxi zadazu, urēngoko oni iritxi ziñion bezela.

*Lenengo egunerako Miraria*

Franziska Piette zeritzaion donzela bat, buruko min ta oñaze gogoñakin *amasei urtean* txit gaizki egon zan. Lau urte zituanerako begietako ikusmen edo argitasuna galtzen asi zitzaion eta geldi-geldi erdi itxuturik begietatik ezertarako balio etzuela jañi zan. Bere gurasoak topatu al zituzten osagilerik onenegana eramaten zuten beren alaba, baña alpeñik, bere min eta oñazeak etziran obetzen, ezpada buruko miñak beti geitu ta begietako ikusmena gutxitu. Onetan Pragako Aur Jesusen iruditxo bat eramán zioten bere eskuetara eta gasteak esan zuan, Aur onek sendatu bear nau, sendatuko nau. Egun artatik auñera utzirik luñeko osagile ta sendakaiak, jañi zan Zeruko Osagile Pragako Jesus Auñaren eskuetan,

Bederatziurén onen bitartez, gaitz aiek guztiak bere gorputzetik kendurik, osasun betea iristeko ustean. Eta Pragako Aur bedeinkatuak lenengo Bederatzi-urénéan arindu ziozkan miñak, eta uréngoetan osasun osoa iritxi zion.

### Egunero azkenean esateko otoiza

O Jesus laztana, aitatu degun oni eman ciñion bezela eskatu zizun mesedea, neri ere iritxi zadazu nerea, ez nik orlako mesederik merezi dedalako, baña nai zure ta nere Ama Maria, Aita San Jose ta Santusanta guztien merito aundiakin baturik eta nasturik nere erégu apala zuzentzen dizudalako. Iritxi bada aeren neri mesede N. nere animaren kalterako ezpada, eta nik, nere aldetik bene-benetan agintzen dizut auferakoan beti-beti izango naizela orain arte baño kristau zintzo, leial ta beroagoa, gorotatuaz beti pekatua ta ostasuna eta maitatuaz animako grazia ta zure adiskidetasuna. Onela geroago ta geiago zu maitatuaz iritxi daizkidazun, Jesus laztana, orain eskatzen dizudan mesedea gero eriotza ona ta azkenik betiko zerua. Amen.

*Orain Zeruko eta luñeko Irutasun santuaren izenean Iru Aita gure, Agur Maria, ta Gloria.*

### Bigarren eguneko Miraria

Konstanzia zeritzaion erian 1892-ko Dagoniñean Karmeldar Mojen Buru edo Piora biotzeko miñez iltzeko sorian jañi zan. Onetan Mojak oroitu ziran Pragako Jesus Auñá zein altsua zan

eriak sendatzen, eta etxean zeukaten bere iruditxo bat eraman zioten arkenetan zegoan Priorari, eta gauza miragarria, berealase obetzen asizan eta egun gutxiren baruan ziara sendatu ta gorgortu zan. Len negarez zeuden Mojak mirari onekin pozez beterik jarri zituan.

### Irugarren egunerako Miraria

Praga'ko Aur Jesusen Anaidian sarturik zegoan aur bat bein begietatik txit gaizki jarri zan, Sendagile adituak alegin guztiak egin arien begietako miñak eta eritasunak lenengo egunean bezela jaraitzen ziee. Onetan aurari berari bururatu zitzaion Praga'ko Aur Jesusen *idantzezki edo estanpatxo* bat bere begietaratzea, eta *fede biziarekin bere begiai estanpatxoarekin ikutu orduko, begiak ziara sendatu zitzaizkon.*

### Laugarren egunerako Miraria

Gazte bati, amar urte zituanean belaun batean irten zion aunditu txar batek, eta ogei urte zituan artean alperrik ibili zan Sendagileik Sendagile ez aunditua txikitu eta ez miñak gutxitzerik etzuan iritxi, beti berdin jaraitu zuan, alik eta Pragako Aur Jesusek zein mirari aundiak egiten zituan oroitu artean. Orduan bereala sendatuko zuan sinispen oso ta fede bizi batekin, erabaki zuan berari Bederatzi-uren bat egitea. Lenengo egunetik asi zan obetzen, eta bederatzigarrenenerako zearo sendatu zan: *Ainbeste Sendagilek, ainbeste urtetan sendatu ezin ziotena, Pragako Aur bedeinkatuak bereala sendatu zion.*

## Botgañen egunerako Miraria

Beljikako Deun Nikola deritzaion erian, 1893-ko Bagilean, Pragako Jesus Auñak urango, mirari au egin zuan. Aur miragañi oni jaiera audia zion dama aberats batek, sei urteko ilobatxo bat eritasun gogor baten azpian zeukan, eta berarentzat osasuna eskatuaz, Pragako Aur Jesusen domina bat lepotik zinzilika jañi zion bezain laster asi zan obetzen, eta egun gutxiren bañuan ziara sendatua gelditu zan.

## Seigañen eguncrako Miraria

M. T. Zeritzaion emakume alargun bat urterdi baño geiagoan zegoan eritasun aundi batekin, ez jan eta ez lo, txit gaizki. Onetan oroitu zan Pragako Jesus Auñaz berealase Iruñen bat egin zion eta bereala zerbait obetu zan. Ondorean Bederatziuñen bat egin zion eta onen bukaeran ziara sendatua arkitu zan.

## Zazpigañen egunerako Minaria


Pranzisko Sigel zeritxon bost urteko aur batek egun batean erorita min aundia artu zuan. Bere amak estutu ta lañiturik Pragako Jesus Auñari eskeñi zion *meza bat*, eta bera atera, entzun eta etxeratu zanean, bere semetxoak bereala esan zion. *Ama, Pragako Jesus Auñak ziara sendatua nau.* Eta amak begiraturik len zauritutako lekue-tara, ikusten du pozik, danak mirariz sendatuak zeuzkala.


## Zortzigarren egunerako Miraria

1891-ren urtean emakume on bat, gorako, edo gonbituarekin eta lorik batere egin eziñarekin, txit indarkaturik gaizki arkitzen zan. Estutasun artan Pragako Aur Jesusen mirariaz oroiturik, bera ere sendatuko zuan fede bizi batekin, érezatzen dio bere érosariotxoa; érosario ori jartzen du gero burkopeian, eta gauza miragaña! aste osoetan begirik itxi ezin zuanak gau guztia lo batean igaro zuan; eta Pragako Aur Jesusi esker aundiak bereala emanik, ziara sendatua arkitu zan.

## Bederatzigarren egunerako Miraria

Andre Érosa Fernandezek min aundia artu zuan ister batean, eta osagile, edo mediku aditu askorengana juan azen iñork ezin sendatu izan zuan, Ogei ilabete onela igarorik, oroitu zan Pragako Mediku sonatuaz, Jesus auraz, eta bere lagun batzuei dei egiñik esan zien: Pragako Aur miragañi oni oña sendatzeko eskatuaz Bederatziurén bat egitera zijoala eta berak ere lagundu zeiotela lan órétan. Eta bederatzi-urèna egin bezain laster, ziara sendatua gelditu zan bere oña. Zenbat dezakean Pragako Aur Jesusek. ¡ Onelako zenbat mirari egiten dituan berak munduko mila tokitan!





## IRU AVEMARIEN BEDERATZI UREN ERAGILEA.

### I.

*Virgo potens.* O guzia dezakezun Andre Maria. Aita Jaungoikoak eskubide ain aundiak eman zizkitzulako, erégutzen dizut, orain eskatzen dizudan mesedea iritxi dagidazula, *Omnipotencia Suplex.* Zure erégu guzia dezakean eta ezer ukatuko eztizun zure Semeari zuzendu zaiozu, alde-tan berotasun guziarekin ezkatzen dizudana Aita betikoak eman zizun eskubide ain aundiarekin iritxi zadazu, eskatzen dizudan mesede au, Iru Avemarien jaiera zabaidu zitzun Santa Matilde-rekin batean esaten dizudan bitartean. Ave Maria etc.

### II.

*Sedes sapientiae.* Ama Maria gozoa zera ez bakañik guziz altzua, guzia dezakezuna, baita ere zera jakintsua, guzia dakizuna; bada zere sabel bedeinkatuan eraman zenduan Jakituriak berak egotzi zitzun beste lagun edo kreatura gu-



ziai baño jakinduria geigo, eta nik eskatzen dizudan mesede au badakitzu zein beaŕekoa detan, eta nere animaren onerako dan edo ez ere bada-kizu, beragatik aur bat bere amaren besoetan etzaten dan bezela, ni ere orain, nere Ama laz-tana, Zure besoetan etzaten nazazu, neri onena zaidana nerekin egin dezazun, nik, Iru Abema-rien jaiera gozoa ainbeste zabaldu zuten zure deboto sutsu Paduako Antonio eta Puerto Mau-rizioko San Leonardorekin eŕezatzen dizudan bi-tartean, *Ave Maria*.

### III.

*¡ Mater misericordiae !* Ama gozo-gozoa, etze-ra bakaŕik *alsua, ta jakintsua*, baita ere zera *eŕukioŕa*, miseri-kordiaz betea, *urikaltasun utsa*. Beragatik eŕegutzen dizut, Ama biguña, nerekin, eŕukaŕiena naizelako, izan desazula eŕukirik aun-diena, muga ta neurígabea, Ongi ezagutzen det neri eztirazula zor orlako mesederik, lenago se-me eskergaiztokoa izan nazulako, baña orain da-mutua nago, ta eŕukia nizaz: eta gañera Santa Brijidari zeroŕek esan ziñionez. ¿ Zerori etzera bada pekatari damutuen Ama gozoa ? Zure de-boto San Bernardok dionez, eskatzen dizuten mesedea iritxi gabe iñor uzten ezpadezu ¿ ni ba-kaŕik utzi bear nazu, ain beaŕekoa detan, eta ain benaz eskatzen dizudan mesede N. au iritxi gabe ?


Ez oŕelakorik, Ama biguña, gozoa, eŕuki utsa zerana, zure Esposo Espiritu Santuok gure ongi-le izateko doaiz bete zinduzena, aŕen iritxi za-dazu eskatzen dizudan mesede au *Iru Avemarien*

jaiera asko zabaldu zuan zure maitale San Alfonso Mariarekin ezezutzen dizudan bitartean  
*Agur Maria...*

## O A R A

*¡ Bederatzi-uren eragilea, mirarigilea, egiten da bederatzi egunetan iru oraziotxo abek beren iru Abemariekin erezatuaz; eta bukaeran itz abek bein edo irubider ezanaz:*

*¡¡ Ama gozoa, bein ere oben astunean ez erortzeko grazia indazu !!*





## ¡¡MIRARIA!!

---

*Miraria ! miraria ! miraria ! baña bene-benetan miraria ere gero Mundutañak, zerutañak infernutañak, begiratu oni ongi, ikusi obeto ta Jaungoikua gauzak egiten asi zan ezkerre onlakorik zeru luñetan iñun egin duan Au bai dala gauza ikusgarria gustagarria bene benetan on-ona.*

Jaungoikuak zeruluñak eta beretako gauza, guztiak egin zituan sei egunian, eta bakoitzeko lanak bukatzean, luñ, itxaso, eguzki, ilargi, izañ ta beste gauza guztiak eta gizona egitian, egun bakoitzeko lanen bukaeran, esan bazuan *Faetum est bonum*, zer ezango zuan oiek guztiak baño mila bider edeñagoa, gustagarriagoa, baliosoa goa zana ta dana Abendu baten *zortzian*, Anaren eñai zorinekuan Maria miragarria sortu edo egin zuanean ?

Une zorioneko artan esango zuan ez bakañik *factum, est bonum baizik Factum est optimum.*

*Au da bai gauza ! au da izakia ! au da krea-tura ! Jaungoikuak bakañik bere jakinduri ta altasumarekin egin zetzakeana, eta egin zuana, Jaungoikuak berak lenago sei egun luzetan egin zituan danak baño, mila bider geiago balio duana, Jaungoikuak beste guztiak baño jakituriz edertasunez, aberastasunez, doaiz ta graziaz beteago, aberatsago egin zuana, sortutako guziaren gorrengo luñean danak baño gorago jañi zuana, bere buru eta biotzean danak baño auñerago ta bañurago sartu zuana, guztiak baño milabider*

maiteago zuana ta duana eta izango ere duana, eta, betiraunetik erabakia zeukan bezela, danen gañean guztien jatorizko, legezko Eregiña bat bezela jañi zuana.

Amaren eraietan Maria sortu zan une berean, gañerako illargi ta izarai eguzkiaren agerkeran gertatzen zaiena, *Eba, Sara, Ester, Rebeka, Rakel, Susana Judit eta gañerako lege zaireko andre santu sonatu guztiai gertatu zitzaien*; lenago aundi ematen zutenak Maria sortzean oso txiki ematen zuten. *¿Ze balio dute Mariaren onduan, Salomonen jakinduri. Absalonen edertasun, Dabiden adore Abraanen santutasun, eta gañerako izan diran gizasemc eta emakume guztien doaiak?* Eta ez luřekuenak bakarrik baizik. *Zeruko Aingeru kerubin, Serafin ta gañerako zeruko espirituen bederatzi talde, bederatzi koruetan arkitzen ziran santutasun eta doaiak danak ere Marienaren onduan utsera, mila bider gutxi-go balio izatera zetozen, danak baño graziaz eta do aiz beteago Bera egin zualako Jaungoikoak.*

Oregatik soñerako une zorioneko artan Anaren eraietara alderatu ařen *deabru talde aundiak* Adanen arazako ordura arteko guziak bezela, bere anima ere soñerako pekatuaren kateakin lotutzeko asmuarekin alpeñikakoak izan ziran beren alegin guztiak, ezin urik ere eman izan zioten, orbanik txikienik ere ezin egin izan zioten; zergatik une artan Jaungoikoaren eskuetatik irten zuan Mariak infernuko milloika deabruk bat eginda baño berak bakarrik adore eta altasun geiago zeukan. *Oregatik Amaren eraietan orduantxe gertatu zan zierpeari, deabruari Jaungoikoak Paraisuan esan ziona: Inimititias po-*

*nam inter te et mulierem et semen tuum et sermen ipsius et ipsa conteret caput tuum et tu insidiaberis calcaneo ejus.*

Mundua mundu dan ezkeru luñean ezta ikusi orduan Anaren eraiten ikusi zan bezelako eraso edo burukarik, Aldebatetik zan infernu guzia eta bestetik oraindik minutu biko izatea etzeukan Maria miragaña, eta onek bakarik berealako batean miloika deabru burukatu eta buruzbera infernuaren bareneraño botatzen ditu. *¡Au bai dala izakia, aña, emakumea portiz eta berdingabea izatea!* Oni bai dagozkiola mundutar eta zerutañen alabantzak.

Zeru eta luñak, Aingeru ta gizon mota guziak bera gurtu goratu eta alabatu zazute.

Izatea daukaten gauza guztien gorengo mañan, zeruan Jaungoiko bat bakara bezela, beren bigarren mañan ere Maria berdingabe au dago, sortua izan zan unean jañi zuan gañerako guztiak baño mila bider gorago, kreaturen artean berdingabea, ondorean asten dira zerutañen beste nañak, Serafinak, kerubinak, Aingeruak eta gañerakoak, taldeka maña bakoitzean miloika. Jaungoikuaren uñena Maria, ta bere sorerako unetik zan danen artean edeñena, jakintsuena, altsuena, doaiz betena Jaungoikoaren maiteena, kutunena, eta beragatik Anaren eraietan Jaungoikuak bere gorputzgai eta anima alkargana batu zituan unean, zegokion ongietoña egiteko jo bear ziozkaten eta bere urtebetetzean jo bear diozkagu, korutako organuak, toñetako karpaiak, kariketako muxikak. Oni abestu bear diote, oni eskeñi bear zaiozka txori, gizon ta Aingeru guztien kantuak; eta alitekean gauza bali-tzateke, zeruko izar, zelaietako belar, arbolen

osto, itxasoko ondarale eta izatea daukaten gauza guztiei ezaguera ta mingaña ematea eta danak korubaten bezela kantari jartzea, jañi egin bear litzakez bera ain goragaña dalako, berari ori guzia dagokiolako.

Oregatik arazoï aundiarekin gure Aita San Franziskok esaten zuan.

*Beatae Virgini omnia quoe possunt privilegia concedi, concedenda sunt.*

Gure Aita Franzisko Doatsuak txit asko maitatzen zuan Ama Maria, bere magal gozoan fundatu zituan bere lenengo bi ordenak 1.<sup>a</sup> 1202<sup>an</sup> eta II 1212<sup>an</sup>, Bere seme-alabak Ama Maria soñera garbiko onen altzo gozoan, biotz estitzuan sarturik bera gurtutzen ikusi nai zituan.

Oregatik ordena fundatu eta amargañen urtean 1919<sup>an</sup> *bost bat mila* fraile Asisko Batzarre edo kapitulo batean batu zituan, eta, Aita auñena zutela, guztiak erabaki zuten andik aurera larunbatoro Ama Birgiñaren gorapenean Meza bat zelebratzia.

Aita Franzisko Doatsuaren semeak beren Aitagandik artu edo eredatu zuten bada Ama Mariarenganako naitasuna, bera maitatzen eta goratzen alegiña egin naia.

Oregatik 1263<sup>an</sup> *Pisan* (Italian) eduki zuten *Batzar* aundian, erabaki zuten, *Ama Mariaren soñera garbiaren eguna urteko jairik aundiene-tako bat bezela zelebratzea*. Ordura arte oso leku gutxitan ospatzen zan *Konzezioko* egun au, Franziskoren Semeak zabaldu ta indar eman zioten baster guzietan oitura santu oni, 1818<sup>an</sup> *Salamankan* eduki zuten beste *Batzarre aundi baten*. Eta ordutik auñera Franziskoñen *laugañen botoa* izaten zan *Ama Mariaren soñera garbia* nun nai

ta beti defenditzea. 1645<sup>an</sup> *Toledon* eduki zuten beste *Batzaře guzierako batean*. Ama *Birjiña soñera garbikoa Ordenako, Zaindari edo Patrona* autatu ta inzentatu zuten.

Franziskotañak beren *Batzaře* guztietan erakusten zuten bada Ama laztan au zenbateraño maitatzen zuten, eta mundu guzia bera maitatze-  
ra ta gurtutzera ekartzen alegiñak egiten zituzten,

Eta azkenik 1854<sup>ko</sup> Abenduaren 8<sup>an</sup> Franziskoren Irugañen Ordenako seme Aita Santu Pio IX<sup>an</sup> Ama Maria pekatuaren orbangabe sortua zala kristau guziak sinisteko agindu zuan.

Aita Santu onek agindu zuan arte kristau guziak pekatuaren azpian beartuak zeudela Maria-  
ren soñeragarbia sinisterra, ordura artean *sei gizaldi ta erditan, Duus Eskoto gurtgarria* eta beste jakintsu asko aurretik zituztela Sorera garbi onen alde buturako gogoñak egin, eta garai-  
pen aundiak irabazi zituzten.

Irugañengo maitea, orain begiratu daiegun bada gauzai ongi eta arazoiak agintzen diguna egin dezagun.

*Lenengo*: Ama Birgiñaren soñera ain garbiko-  
ari bera dana dalako, dagozkio gure egin alqui-  
aiozkakean goraltza guztiak, eta beragatik goratu dezagun.

*Bigañen*: Gure Aita San Frankisko ta gure aurretiko bere semeak, gure anaiak, al zuten guztia beti goratu zuten, bere alde ainbeste lan eta buñuka gogor eginaz. Bera goratu eta bera gurtutzera mundu guzia ekartzen alegin guztiak egin zituztela ikustean, zer dagokigu guri egitea? Berari etengabeko oneraspen, ta jaiera bat eduki-

tzea eta bere egun aundia alueratzian, *Bederatziuren* bero bero bat berari zutzentzea.

Onenbeste goraltza Ama Birjiña sorera garbikoari eta Franziskotarak berari bedi eduki dioten jaierari zuzendu diozkategu kristau guztienak baña batez ere Aita San Franziskoren Irugarangoak berotzeagatik berari gutxien gutxienez bederatziuren labur bat egitera, bada Irugarango bat bakara contzeziñotan bera egin gabe eztu gelditu bear, eleizan ezin badu, etxean, nun edo au Ama Mariari egin bear dio bederatziuren *au Ara bera*.

### Lenengo eguna

*Gurutze santuaren, etc.*

*Nere Jesukristo Jauna, etc.*

*Otoitza:* Agur Maria, garbitasunaren lirio zuri edera, Anaren eraietan sortu zinan unetik graziaz txit estalia, Zuk *etemu* guziz pribilegiatuaren gisa inolako orban gabea zina bezela, Jaungoikoaren asarpean inoiz egon etziñon orok, eregu zazu gupekariokgatik gure obenai dago kiten kastigu gabe Jaungoikoak zeruratu gaitzan.

¡Ama gozo ta urikaltsua! Zure garbitasunaren Bederatziurena egiten dizugunoi, mesede au eta Bederatziurenean eskatzen digun berarizkoa iritxi daizkiguzun eta ongite ain audiaren esker ona zuri erakustiañen, goratu eta alabatzen zaitugu. Zeru-luñetako izakiai orretarako dei egiñaz, guztiekin alkaturik poz eta atzegiñez suturik, zuri esateko.

I. ¡O Maria! garbi-garbia. Anaren eraietan pekatuaren orban gabe sortua, Zeruko Aingeru



guztiekin batian, munduko Enperadore guztien Enperadorearen Alaba zeran oñen aurrean; belaunikatu eta auspeztzen naiz pozez beterik Aingeru San Gabrielekin esateko: *Agur Maria, etc.*

II. ¡O María! garbi garbia, sorerako pekatuaren orban gabe Anaren eraietan sortua, zeruko Aingeru nagusi edo *Arkanjel* guztiekin batian belaunikatu eta auspeztzen naiz Espiritu Santuaren Esposa gozoa zeran oñen aurrean, guziok batian zuri esateko: *Agur Maria, etc.*

III. ¡O Maria! garbi-garbia, sorerako pekatuaren orbangabe Anaren eraietan sortua, Zeruko *Birtute* guztiakin belaunikatu eta auspetzen naiz Seme Jaungoikuaren Ama zeran oñen aurrean Aingeru San Gabrielekin esateko. *Agur Maria, etc.*

IV. ¡O María! garbi-garbia, pekatuaren orbangabe Anaren eraietan sortua, Zeruko *Prinzipadu* guziekin belaunikatu eta auspeztzen naiz pozek beterik, Aingeru San Gabrielekin zuri esateko: *Agur Maria, etc.*

V. ¡O Maria! garbi-garbia, sorerako pekatuaren orban gabe Anaren eraietan sortua, Zeruko *Patestade* guztiekin batean Jaungoikoaren Alaba, Esposa eta Ama zeran oñen aurrean apaltasun guziarekin belaunikatu eta auspeztzen naiz, guziok pozez beterik Aingeru San Gabrielekin esateko: *Agur Msria, etc.*

VI. ¡O Maria! garbi-garbia, pekatuaren orbangabe Anaren eraietan sortua, beste zerutar guztiak baño mila bider gorago eserita zauden oñen aurrean zeruko *Dominazio* guztiekin belaunikatu eta auspeztzen naiz, pozez beterik zu abestzeko, esanaz: *Agur Maria, etc.*

VII. ¡O Maria! garbi-garbia, pekatuaren or-

bangabe Anaren éraietan sortua, zeruko *Tronu* guztiekin batean, zeruko grazi ta ondasunen zabaltzalea zeran oñen oñetan, auspeztzen naiz, guziok pozez beterik zuri esateko: *Agur Maria, etc.*

VIII. ¡O Maria! garbi-garbia. Ana zorionekuaren éraietan pekatuaren orbangabe sortua zeruko *Kerubin* guztiekin batean zeruko *Eregiña* aundi oñen oñetan apaltasun guztiarekin belaunikatu eta auspeztzen naiz, guziok pozez beterik zuri esateko: *Agur Maria, etc.*

IX. ¡O María! garbi-garbia Ana zorionekoaren éraietan pekatuaren orban gabe sortua, zeruko Santo-santa guztiekin batean Aingeruen *Eregiña* zeran oñen aúrean belaunikatu eta auzpeztzen naiz, pozez beterik zu goratzeko Aingeru San Gabrielekin esanaz: *Agur Maria, etc.*

X. ¡O Maria! garbi-garbia Ana zorionekuaren éraietan pekatuaren orbangabe sortua *luñeko gizon guztiekin* batean belaunikatu eta auzpeztzen naiz zeru luñetako *Enperatriz* goratua zeran oñen aúrean, guziok pozez beterik zu goratzeko esanaz: *Agur Maria, etc.*

XI. ¡O Maria! garbi-garbia. Anaren éraietan pekatuaren orbangabe sortua, *Garbilekuko Anima* guztiekin batean belaunikatu eta auzpeztzen naiz, gure *Ama txit* gozo eta altsua zeran oñen aúrean, pozez beterik zu alabatzeko Aingeru San Gabrielekin esanaz: *Agur Maria, etc.*

XII. ¡O Maria! garbi-garbia, Ana zorionekuaren éraietan pekatuaren orbangabe sortua, *Zeru luñetako* izaki edo kreatura guztiekin batean belaunikatu eta auzpeztzen naiz, kreatura guztiak maitatu ta gurtutzen zaituzten oñen aúrean,

pozez beterik zu goratzeko Aingeru San Gabrie-  
lekin esanaz: *Agur Maria, etc.*

## Tota pulkra es Maria

Guzia edeña, zera Maria.

Guzia, edeña zera Maria.

Eta jatorizko obenik ezta arkitzen zuregan.

Eta jatorizko obenik ezta arkitzen zuregan.

Zu zera Jerusalemen gloria.

Zu zera Jerusalem gloria.

Zu zera gure eñiaren onña.

Zu zera gure eñian onña.

¡O Maria! ¡O Maria!

Birjiña txit begiratua.

Ama guziz erukitsua.

Eregu zazu gugatik.

Gure Jaun Jesukristorekin egin zazu gure bi-  
tartekotza.

v. Jaungoikoaren Ama Donzela zure sortze  
orbangabeak.

r. Mundu guziari poz atsegiñ beña eman  
zion.

## Otoitza

O Jaungoikoa, Birgiñaren sortze orbangabea-  
ren bidez Zure Semearentzat diña zan bizi leku  
bat prestatu zenduana, erégutzen dizugu alde  
aurez zeñekien zure Semearen eriotzaren birtu-  
tez Donzela au orban guzitik gorde zenduan be-  
zela, guri ere iguzula bere bitartekotzagatik bi-  
zitza onen ondoren gure pekatuetatik garbiturik,

Zugana joatea gure Jaun Jesukristo beragatik.  
Amen.

### Bigarren eguna

*Gurutze santuaren etc.*

*Nere Jesukristo Jauna etc.*

#### Otoitza

Agur Maria, egun sentiko izañ txit argiaren zuzentasunezko eguzki Jaungoikuaren albistariak bezela, bere argitasuna lenengo mundura ekañi zenduana, Andre indartsua, Donzela garbi beti gorde zina. Zu *piño* txit mardul eta sendoaren gisa, etsaten bultzada eta aize txar indartsuak atzeraturik, grazian beti lerden iraun zenduan orrek, erregutu zazu gupekatariokgatik, Jaungoikuak bera ez ofenditzeko asmo sendua eta etsaien eraso guztietan beti sendota lerden irauteko lagundu daigun. ¡O Ama gozo eta altsua! mesede au eta Bederatziuren onetan eskatzen dizuguna iritxi daizkiguzun poz eta atsegiñez beterik zuzentzen dizkizugu urengo.

#### Goraltzak

I. ¡O Maria! garbi-garbia etc., (esan XII ren orian goraltzak). *Tota pulcra.*

#### Otoitza

### Irugarren eguna

Agur Maria *eguzkia* bezela esleitua pekatuaren gau ilunean, inolako iluntasun gabe Anaren eraietan sortua, Aita zerukoaren Alaba suerte onekua sutan eretzen eztan *zubeltz* edo *ebanua-*

*ren* gixa, gizañaza eretzen duten pekatuzko griña txarñen berotasun ta sugañen indañoak iñolako kalterik bein ere egin etzitzuna, eregu zazu gupekatariok gatik, su ain aundia itzaltzeko eta gure griña matuñoak eskuratzeko indaño Jaungoikuak eman daigun.

¡O Ama! urikaltsu eta altsua, grazia au eta Bederatziuñen onetan berariz eskatzen dizuguna iritxi daizkiguzun zuzentzen dizkizugu uringo.

*Goraltzak. 323 ñen orian*

*Emetik auñerako guztia lenengo egunean bezela*

### Laugañen eguna

Agur Maria, jentilen erlijio paltsuen ilunpean zegoan mundua argitzera etoñi ziañan ilargi edeña, Zu Jaungoikuaren Seme aragiz jautziaren Ama txit amodiotsua, zu izan ziañan zeruko Eregeari itzala emateko bezela *erekondoko Platano* edeñaren izenaz esleitua; eta zure lan, obra on garbien azpian infernuko dragoia arkitu etzenduen orek, eregu zazu gupekatariok gatik, auñerakoan geigo gure anima pekatuz zikindu gabe Jaungoikoak gorde gaitzan.

Ama urikaltsu eta altsua, grazia au eta Bederatziuñen onetan berariz eskatzen dizuguna iritxi daizkiguzun zuzentzen dizkizugu uringo.

*Goraltzak*

*Emetik auñerako guztia lenengo eguna bezela.*

## Bostgañen eguna

Agur Maria, ejerzitu aundi izugañi batek bezela, Zuk bakañik infernu guzia izutu ta igeska jañi zenduan geñari portiz ikaragaña. Zu Espiritu Santuaren Esposa guziz maitea. Zu *zuatzondo ugaritsuaren* giza, soileta agor izan bear etzenduan oñek mildio edo pekatuaren gaiso galgañirik, zure sustraieta adarretan ezagutu etzenduan oñek, eñegu zazu gu pekatariokgatik, pekatu galgañietatik beti aldendurik burutazio santu eta lan onetan ugariak izan gaitezten.

Ama urikaltsu eta altsua, grazia au eta Bederatziuñen onetan berariz eskatzen dizuguna iritxi daizkiguzun zuzentzen dizkizugu uringo.

### Goraltzak

*Emetik auñera guztia lenengo egunea bezela*

## Seigañen eguna

¡Agur Maria! guztiz edeña, betiraunetik Jauñak beretzat autatu eta gordeta zauzkana. Irutasun Santuaren bizileku ain apaiña. *Kadezko Palma* sendoak aditzera ematen zaituena bezela, pekatuaren astuntasunak bein ere makurtu etzinduzena, eta santutasunean. *Kaelezko Palmaren* giza gorengo maletara igo zenduan oñek, eñegu zazugu pekatariokgatik, lengo griña txañen indañoak berik pekatu eragin eztaiguten.

¡O Ama! urikaltsu eta altsua, grazia au eta Bederatziuñen onetan berariz eskatzen dizuguna iritxi daizkiguzun, zuzentzen dizkizugu uringo.

### Goraltzak

*Emetik auñera guztia lenengo egunean bezela.*

## Zazpigarren eguna

Agur Maria, bedeinkatzen ditugu zure gorputz, guraso, etxe ta sortua izan zihan une zorioneko ura.

Eleizaren amparatzaile esku indartsudun altsua. *Libanoko Zugaitza* bezela obenaren zitzak, arak jotzake ta uzteltzake, beti garbi ta gordiñ gorde zihan orek, eregu zazu gupekatariorikgatik, Jaungoikuak guzion Eliz egiazko bakaria, gure fede santua oso ta inolako galera gabe gordetzeko adore eta indaria eman daizkigun. ¡O Ama urikaltsu eta altsua! graziau eta Bederatziuren onetan berariz eskatzen dizuguna iritxi daizkiguzun zuzentzen dizkizugu urengo.

## Goraltzak

## Zortzigarren eguna

Agur Maria, Anaren eraietan sortutako aurtxo miragarria beste Done edo Santu-Santo guztiak baño grazias apainduagoa, Espiritu Santuaren lanez gure gaizkatzale Jesus luiera eman zinguzun Jaungoikuaren Ama. Zeruko Eregiña guttiz agurgaria, Jaungoikuaren eskuetatik artu zinduzen grazia ugariak batere-batere arindu ta gutxitzake *Siongo siprezaren* giza, bein ere ostorik oritu eta igartu gabe, birtute danetan beti gordin gorde zihanana; eregutuzazu gu pekatariorikgatik Jaungoikuak gure itxaropena geruago eta indartsuago eta gordinago gorde daizkigun.

¡O Ama urikaltsua eta altsua! grazia au eta

Bederatziurén onetan berariz eskatzen dizuguna iritxi daizkiguzun, zuzentzen dizkizugu uréngo.

*Goraltzak*

*Emetik aurerako guztia lenengo egunean bezela*

**Bederatzigaurén eguna**

Agur Maria, aur goragaña, zure soñera miragañan infernua bilduréz, mundua pozez eta zerua atzegiñez bete zinduzena, *nardo*, *Jerikoko arrosa* eta *usaigozoko balsamo* guziak baño birtutezko usai gozoagoa bazter guzietara zabaldu zenduana; une artatik ekañi zinien txikiari poza, eriai osasuna, atzekabetuai atsegiña, guztiai alaitasuna; eta biotzez éregutzen dizugu, orduan lenengo une artan Anaren éraietan aragiz sortu zinan bezela, orain, amodioaren indaréz, sortu zaitea-la espirituz gure animetan.

Bai ¡Ana Maria! guztiz urikaltsua. Zuk *Olibo* paketsuaren, gisa inñolako asañebiderik, okeñik izan etzenduana eta maitetasun eta pakea lurrean zabaldu zenduan orék, éregutu zazu gu pekatariorikgatik, Jaungoikuak gure amodioa geituaz, amorioaren sugařetan irazekirik, bizitza onetan gauza guziaz gain Bera maitatu eta bestean, Zurekin batera, sekula guzietan Beraz goza dezagun.

¡O Ama urikaltsua! grazia au eta Bederatziurén onetan berariz eskatzen dizuguna iritxi daizkiguzun zuzentzen dizkizugu uréngo.

*Goraltzak*

*Emetik aurera lenengo egunean bezela*



**Ama Mariari Bederatziurren bat noiz nai  
beragandik mesede aundiak iristeko egokia.**

**Lenengo eguna**

*Gurutze saniuaren etc.*

*Nere Jaun Jesukristo etc.*

*Egun guzietarako otoitza*

Jaungoikuaren Ama, guziz Doaitsua eta gure Ama erukitsua emen naukazu zure oñetan auspertua, nere agur apalak zuri egiten, nere itzazu goraltzeko, ta nere biotzeko zaletasun gozoak Zuri eskeintzeko. Birjiña maitati oñek nere adimena argi zazu, garbi zazu nere gogoa nere biotza irazeki zazu, zuretzat eta Zure Semearentzat bakarrik bizi az, doai guzietan aundiena azkenerako grazian irauaz zeruan sartzea iritxi dezadan. Amen.

**Gogartea**

Auspeztu gaitean Mariaren aldaren aurrean, bere irudietan agur onak egin zaizkiogun, bere izena deitu zagun, peril eta estusa larrietan bere laguntza eska zagun. Eta Maria gurtutzen degun une berean Ama onegan beragan guzia dezakean Jaungoikua ere goratu dezagun Mariagan gauza ain miragarriak egin zitu!alako.

*(Saloko Matias Gurtgarriak).*

*Gertatua* : Españako Errege San Fernando Iru-

gañen ordenako irazekiak Ama Mariari jaiera txit aundia eduki zion. Gudara zihoanean beti berarekin ai zerabilen Maria irudia. Su edo atake guztietara Ama onen laguntzaren itxaropen osoan sartzen zan, eta irabazten zituan atake guztiak Ama onen bitartekotasunari egozten ziozkan. Berari laguntzen zioten Jeneral gudariena gan baño Mariarengan itxaropen sendoa goa zeukan.

Egun batez Sebila estu-estu inguratua zeukan garaian, berarekin zerabilen Mariaren irudiaren aurrean belaunikaturik eskatu zion atake artarako laguntza eta bere auretik etsai altxatu arek eta bere eskea aditu ziola oso sinistu zuan artean. Mariaren soldadu eruzu onek bera iltzen zanean bere gorputza Mariaren oñetan obiratu zetzatela agindu zien. Maria portiza da bufukarako eta garaipen asko eskuratzen dizte bere egiazko debotoai San Fernandori iritxi ziozkan bezela.

*Mariaren onñan.* Gure ezbai eta bildur aldie-tan beti egon gaitean Mariarekin.

*(Irugañen ordenako Fr. Antonio Bermejorena).*

*Eskaria.* Pekatarien gordelekua, jaungoikuaren Ama, oroizaitenizaz.

*(Kopertiñoko Joserena).*

*Iritxi zadazu, Ama bederatziuren onetan eskatzen dizudan mesedea.*

Antifona: Zure babespean Jaungoikuaren Ama Doitsua, biltzen gera eta gure eskariak beti zintzo adituaz galbide guztietatik gorde eta zerubidean zuzen eraman gaitzatzu.

v. Jaungoikuaren Ama Doatsua gure alde otoi egin zazu.

R. Jesukristoren aginduen jabe agin gaitean.

## Otoitza

Jaungoiko urikaltzua, gure elbaritasun eta aultasunatu bear duan indar eta laguntza iguzu, gu Zure Amaren oroipena egiten degunak, bere otoitzen laguntzaz, gure gaiztakeritik jaiki gai-ki gaiteren gure Jaun Jesukristoren bitartez. Amen.

## Bigarren eguna

*Asiera ta bukaerako otoitzak lenengo egu-nean bezela.*

## Gogartea

Ezin ditekean bezela gure salbazioko lana egin edo betetzea betiraunetik esleitua zegoan Jaungoikuaren Semea baño aundiagorik ezer; ain gutxi diteke ezer izatea Jesusen Ama, gure ongile eskuluzeko izateko, betiran netik autera zegoan Maria baño aundi, garaita miragañiagorik. Eska zaiogun Andre miragañi oni, pekaturik libratuak Jaungoikuak nai duana egiteko grazia iritxi daigula.

( *Klara Foruari Doatsuarena* ).

*Gertatua* : Biterboko Santa Rosa Irugarren ordenako birgina sonatua; beregizaldian emakume sonatu eta aomen aundikoa eta Aita Santuaren abe sendoa zanak Zilizio, barau ta azotaldien indarez zeruko atsegiñak eta infernuko atzekabeak ikustea Mariagan dik iritxi zuan. Guz-

tiz saritan Maria samurtasunik, biguntasunik ain dienaz agertzen zitzaion, eta beraganako jaiera, debozioa il zuan guzia zabaldu zezala agintzen zion: eta Erosak eriotzara arte lan santu oretan beti jarai tu zuan. Il da gero bein batean Aita Santuari agerturik esan zion: «*Ni Jesusekin Mariaren mirabe Erosa naiz*».

Irugarengo maitea, gure arieba santa onek bezela maita ditzagun Jesus eta Maria, Eleiza eta Aita Santua eta bera bezela Jesus eta Mariaren ondora zerura elduko gera.

*Mariaren onran.* Jaungoikuak Mariarengan egin zituan gauza aundietan pentsatuaz iru aldiz esan dezagun Salvea.

*Eskaria:* Maria, aien zure begi urikaltsuak neregandik beinere ez kendu.

(*Irugaren ordenako Sor Generosarena*).

*Iritxi zadazu, Ama, bederatziuren onetan eskatzen dizuda mesedea*

## Irugarren eguna

*Asiera ta bukaerako otoitzak lenengo egunekoak*

### Gogartea

Zeruko Doatsuak Mariaren bitartez zerua iritxi zuten. Gaurko egunean ere anima onak benetan Jaungoikotiak diranak mirari arigariak beritzen ikusten dute: zerurako aldatzak garboz egotzeko eta bidean topatzen diran eragozpenak adoretzu garaitzeko bear diran argitasun eta indarrik, beragandik iristen dituzte Mundu onetako ilunpe beltz mila perilen erditik ziar

zuzen zeruratzeko argirik biziena eta laguntzale rik zintzo ta sendoena bera topatzen dute.

Guk ere bada, gure uste ta itxaropen guzia Beragan jañi zagun, gure estuasun guzietan berari dei egin zaiegun: eta Berebitartez iritxiko degu gure ainbeste pekatoren barkazioa, gure aultasuna sendotzeko bear degun indara eta eriotzaraño onean irauteko grazia.

( *San Buenabenturarena* ).

*Gertutua* : Seliko San Kamilok Kaputxinoen bizitza eramateko osasun gutxikin ikusi zuanean bere burua, sartu zan Aita San Franziskoren Iru-garen ordenan eta bere indar guziaz beti maitatu zuan Ama María. Mariaren maitale aundi San Alfonso Maria zuen bere animaren gidari bikaiña eta onek Mariaganako jaiera aundia bere biotzean sartu zion, Kamilok beree zeregin guztietan argitasun eta laguntza eskatzen zion Ama Mariari, eta oren erakutsi ta laguntzarekin pruebatu zuan agonian arkitzen ziranai eriotza onbat egiten laguntzeko *Anaidi edo ordenabat* Ama Mariari zion jaiera gatik beti *eritegian* ospitalean egon nai izaten zuan, eta bertako makalenzenden eriari berak lagundu nai izaten zien, eta bere oitura onegatik Mariagandik sekulako mesedeak iritxi zituan.

*Mariaren onran* : Erigaisoakgatik eregu zagun, eta, albadegu, beretakoren bat ikusi eta Ama Mariazaz zerbait itz egin daiogun.

( *Irugaren ordenan lenengo sartu zan Supesio Doatsuarena* ).

*Eskaria* : Agur Aita Jaungoikoaren Alaba, Seme Iesusen Ama, eta Espiritu Santuaren Esposa, eta Irutasun Santuaren bizilekua; nere

anima eta kristau guztienak zure kontura uzten ditut.

( *Monte Granarioko San Serafino Kaputxinoarena* ).

*Iritxi zadazu, Ama, bederatziuren onetan eskatzen dizudan mesedea.*

## Laugarren eguna

*Asiera ta bukaerako otoizak lenengo egunekoak.*

### Gogartea

Bere Semea gizon egiña bere aurrean belaunikatuta, berarekin berdin dana, beremenpeko egiten. Maria dala bide ikusi du Aita Betikoak. Maria dala bide Seme oni eman al izan dio aintbesteratuzko alabantza gloria. Maria dala bide Jaungoikuaren ugaritasunaren betetasuna dan Espiritu Santuak Jaungoikuari gloria ematen dion ugaritasuna arkitu du, onela iru Persona jaungoikozkuak Maria betiko argi bizi eta gloria ezkutatuz betetzen dute: eta onela esatea gatik, Maria iru gloria oienaz apaindurik, neurigabeko leize ondogabea ezkutatzen eta gordetzendala dirudi.

Neri Jaungoikuaren Seme gizon egiñaren Ama bedeinkatuaren aunditasunaren onduan, beste zerutar Doatsu guztien aunditasuna iluna, beltza, txikia iruditzen zait.

( *Boloniako Santa Katalinareua ordenako* ).

*Gertatua* : San Franziskoren alaba Bost zaurietako Santa Maria Franziskak, nolako jaiera Mariari gorde bear diogun ederki erakusten

digu, Bada aurtxoa zanetik Birjiña txit santaren babespe eta estalpe ongaría berotasunik aundienaz eskatu zuan, eta bere eréguak Mariak ongi aditu ziozkan. Jaungoikuaren Ama onek grazia aundi ugariazkin bete zuan. Jesusen Nekaldiko ezkutapenak berak ere agertu ziozkan, gaitzaldi aundietatik atera zuan, eta bere izena deitzeaz beste gabe mirari arigaríak egiteko almenez jantzi zuan *Gure Santa Mariaren arkumetxoaren izenaz deitzen zan, eta Nora Ama Maria dator ¡ O ene Ama ! esanaz ilzan.*

*Mariaren onran :* Mariaren irudiaren anrean amabi aldiz belaunaz luía joko degu berotasun aundiaz esanaz: *Maite zaitut Maria.*

( *Suloko Aita Alesio gurgariarena* ).

*Eskaria :* Bedeinkatua izan zaite Birjiña guziz santa, kreatura guzien garaiena. Jaungoikua geien maitatzen dezuna, eta Jaungoikuak berak ere maiteen zaituena. ( *Santa Brigidarena* ).

*Iritxi zadazu Ama, bederatziuren onetan eskatzen dizudan mesedea.*

## Botsgaren eguna

*Asierata bukaerako otoizak lenengo egunekoak.*

### Gogartea

¡ Jesus ! ¡ Maria ! izen guztiz santu, gozo ta atsegiñak dira ! Jesus da gizonen Eguzki egiazkua Maria egun sentirik gozoena. Argi emanaz asten da egun sentia, eta auñeratuaz dijoan bezela geitzen du argia: Maria bere sortzean Santa zan; santutasunean aziaz beti jaraitu zuan. Egun

sentiak zeruargien *éregea*, au da *eguzkia*, argitara emateaz, bere osotasuuetik ezer galtzen eztu. Mariak zeruko *Éregea* argitara emanaz bere garbitasunetik ezer galtzen ez tuan bezela. Eguzkiak egun sentiko sortuaz dijoan bezela, egun sentiak eguzkiak laster irtengo duan beñia ematen du; graziaren alaba dan Maria graziaren Egile, beraren Ama izatera igarotzen da. *¡ O zuzentasunezko Eguzkia !* gurtutzen zaitut; ongiratu zazu nere biotz alkoña, piztu zazu zure graziaren berotasunaz ! ; O egun senti eder graziaz betea nere utsaldiai begiratu gabe amodio-rik garbienezko egunari asiera eman zaiozu. (*Aita Argentanorena*).

*Gertatua* : Geñá batean San Jeronimo Emiliano, artu grilos lotu eta ziega ilun batera bota zuten, eta kate gogor aietatik Mariaren esku alsuak libratu zuan. Mesede aundi onen esker eta ezagueraz bere grillo ta kate aiek Mariari eskeini az bere mirabe leial jañi zan. Bergamora joan eta Mariaren laguntzarekin emakume galdu asko bide zuzenera erakañi; une zurtz beartsuak, bildu eta Anaidi edo Kongregazio beñi bati asiera emen zion. Irugañen ordenako abitua artu, eta guziak Maria onña zezaten, txit asko saiatu zan, eta grazia askorekin bere zelo a pagaturik, azkenik eraman zuan zeru edeñera.

*Mariaren onñan* : Erlojuak ordua jotzean éreza zagun. *Agur Maria* eta suspirio batekin Mariari bial zaio gun gure biotza. (*San Leonena*).

*Eskaria* : Agur, Donzela guztiz garbia, gure amodioaren asiera adimentuaren goz aera eta zeruetako edertasuna. (*Bustosko Bernardino Doatsurena*).



*Iritxi zadazu, Ama, bederatziuren onetan eskatzen, dizudan mesedea.*

## Seigarren eguna

*Asiera ta bukaerako otoitzak lenengo egunean bezela.*

## Gogartea

Gizañazaren gañera Mariak zabaltzen dituan mesede tu graziak konta al baño aundiagoak dira, ¡ O Jaungoikuari nai dakiola Beraren bidez luñera josten diran grazien ugaritasun eta aunditasuna guk ongi ezagutzea ! Orduan ikusiko genduke nola esku luzeko Ama ona bezela begi uñikaltzuas guri begiratu eta bere mantupeian gordetzen gaituan. Orduan ikusiko genduke ez-tala gure negañak txukatzer eta gure gaitz eta ezbeañak estaltzera laguntasunik aundienaz Bera saiatzen eztan leku eta unerik Jaungoikuari nai dakiola, nolako samurtasunaz bere serbitzariak maite dituan, eta zenbat mesede berai egien dizten egunen batean guk zeruan ikusi al izatea. (*Segur Jaunarena*).

*Gertatua* : Mariskotiko Santa Jazinta, Mariaren mesede berezibategatik, biziera lasaia utzirik, biziera santu baten sartu eta bertan jañaitu zuan bizitza guztian. Birgina Amagana aurtxo baten itxaropenaz joaten zan eta birtute-atan Ama onen antzeko izateko, katazkorik aundienak egiten zituan. Guneko iduripen txañen bilduñez esan oi zuan (eta esan zedila aolkatzen konsejatzen zuan) Jaungoikuaren « *Ama zure*

*garbitasuna eta donzelatasua orbangabeagatik lagun zadazu estuasun eta zirikada guztietan ».* Eriotzako esturan deadar egiten zuan esanaz. « *¡ Maria, Maria, ene Ama ! ¡ nun zera ! O Birjiña txit asko gurtua, Ama urikaltsua egin dizkitzudan ainbeste txarkeriz aztu zaite, aztu zaite.*

*Mariaren onran :* Gere oneraspen edo debozioak berotasun aundi batekin egin ditzagun; gure bizimoduko eginkizunak bete ditzagun ongi eta guzia alik ongien egiteko asmo sendoa artu zagan, gure esan egin guziak, lore ederak bezela, zeruko Eregiñari gogoko izan dakizkion.

*Eskaria :* O zeruetako Eregin eta Aingeruen Eregearen Ama gurtgaria biotz-biotzetik egiten dizut nere aguria. (*Poloniako Eregiña Kunegunela Doatsuarena*).

*Iritxi zadazu, Ama, bederatziurten onetan eskatzen dizudan mesedea.*

## Zazpigarren eguna

*Asiera ta bukaerako otoitzak lenengo egunean bezela*

### Gogartea

Anima bat Jaungoikuaren begietan aundi egiten duan birtutea da apaltasuna, umiltasuna. Ama Maria bere apaltasunagatik iritxi zan Jaungoikoaren Alaba Esposa eta Ama izatera. Birtute audala bide doaiz eta birtutez ainbesteraño jantzi eta aberastua ikusten dabera, non berakin berdintzeko izaki edo kreaturarik zeru luñetan

ezta arkitzen. Da zeruko Erégiña, luíeko Enperatriza, infernuko izu laboría. Berari eta Jaungoikoari atsegin eman nai badiegu kreaturaik apalen onen artzekóak izan gaitean. (*Bergamoko Aita Kaietanorena*).

*Gertatua*: Irugarén Ordenano San Ibo, bear-tsu edo pobreen letradua, Mariaren mirabe, deboto leial eta zintzoa izan zan. Auzibide zail edo gaiztoren bat eskuetaraten zitzaionean, kulpagabeak bide gaiztoz azpian artu nai zira-nean, gure bitarteko altzu Mariaren aúrean belaunik aturik bere laguntza eskatzen zion. Suer-te aldi guztietan itxuitxuan Mariaren gana zijuán; eta bere biotz bigunean Mariarentzat zeukan maitetasuna bestien biotzetara isurtzen saiatzen zan. Maria ikusteko iríkatzen zegoan egun batean, Mariak beragana dei egin zion.

*Mariaren onran*: Mariaren aldare baten aúrean belaunikaturik, eska dizaiogun ainbeste dijoakigun gure salbazioko egiteko aundian lagundu daigula. (*Giojosako Aita Angelorena*).

*Eskaria*: Gizonen Emperatriz eta kreatura guzien Etxekoandrea, zure mirabearen anima zeruratu zazu. (*Simaringako San Fidelena*).

*Iritxi zadazu, Ama, bederatziuren onetan eskatzen dizudan mesedea.*

## Zortzigarén eguna

*Asiera ta bukaerako otoitzok lenengo egunean bezela.*

### Gogartea

Maria asko da zu eza gutzea. Zu maitatzeko,

eta ezin ditēke zu maitatu zaituenak beti maitatzeko gogoa ez idukitzea. Zure aldetik mesedezko kate luze atzegin gañi batek, eta neretik esaguera ta esker onezko beste batek bion biotzak alkañi lotzen dizkigute. Kate au geroago ta estuago egin bedi, eta añen ezutzi, ene Ama, biok alkañengana onela lotzen genduan kate zorioneko au urátzen; bada Zuganako amodioa nere biotzean aitzea baño naiago det iltzea, bizitza aitzea.

*Gertatua* : Merizizko Santa Anjela Aita Santu Pio IX<sup>ak</sup> emakume kristauen ispiłutzat begietaratzen duana Mariarenganako debozioaren beste ejemplo argi eta eder bat da. Bere beargai guzietan Ama oni deitzen zion, bere txadon edo eleiza Santuarioe sonatuetan bisitatu zuan eta berak asmatutako *Anaidi* edo *Erlijion Zaindari* Ama au jañi zuan. Mariari gogoko zitzaion guztia biziro maite zuan, Jesusen Esposa leial, fede egiazkoaren anparatzale erutsu, Eleiza santaren gloria auñeratzerá biziro itxutua izan zan eta Aita Santua bere zabaltasuna guzian uztearen truke bere bizia eskeñi zuan. *¡ Onela maitatzen da Maria !*

*Mariaren onñan* : Mariari eman zaiogun berak ainbeste maitatzen duan *garbitasuna* batere orbandutzake beti gordeko diogun itza, eta asmo au zintzo gordetzeko bear degun laguntza Bera-ri eskatuaz, eta beragandik mesede au iritxiko degun itxaropenakin erezatu daiogun iru aldiz *Salbea*. (*Irugañen ordenako Inozenzia, Riui gurtgañiarena*).

*Eskaria* : Garbitasunezko Ama, amodiozko Ama, zuri agintzen dizut nere biotza (*Irugañen ordenako Ana Katalina Briniskaltzena*).

*Iritxi zadazu, Ama bederatziuren onetan eskatzen dizudan mesedea.*

## Bederatziaren eguna

*Asierata bukaerako otoitzak lenengo egunekoak*

### Gogartea

Jaungoikuaren Ama miragaría guziaz biotz ongile eta beso zabalduekin agertzen zaie, guziaz Ama guziz urikaltsua bezela begietaratzen zaie eta bere urikaltsunak mesedeak egiten, dizte, Biotz samuraz bera maitatzera eta leialtasunaz Bera serbitzera iristen bagaizko, gure aultasuna indartu, eta animaren etsaiak zapalduko dizkigun itxaropen osoa eduki genezake; eta orain emen gure bizitzan dauz kagun naigabe ta atsekabeak gero gero gure espirituko atsegin gozo biurtuko zaizkigu, eta betiko zeru ederera eramango gaituzte. (*San Buenabenturarena*).


*Gertatua*: San Koke kristanen karidadean ain aundia zanak, Irugarren Ordenako beste Santuak bezela erakusten digu, San Franziskoren iru Ordenen zaindaria, au da, Ama Maria maitatzen eta gurtutzen, Bere bulara Mariaren gunako jaieraren señaile ederak apaindu eta *Erosarioa* eskuetan zuala basterik bastar ibili zan, naigabetuak, eriak eta iltzen zeudenak ikusten, osasun, poz eta atzegiñez guziak betetzen, zeregin santu onetan alegiñak egiten. Batekoik beste bidetan zebilenean, bidetako Ama Birjinaren eleizaetan bere bizita ta egonaldirik gozoe-

nak egiten zituan. Apaltasun, txirotasun eta karidadean Ama Mariaren antzekoa izan zana; au imitatzen, oni jaraitzen atsegiñak egin zituan; eta oregatik beroregatik Ama Mariak bera ere txit asko maitatu zuan, eta mesederik aundienezakoak bizitza ta eriotza bera poz eta atseginez bete ziotenak, iritxi ziozkan.

*Mariaren onran*: Ama Mariaren onetan belunikaturik, bere eskuetatik artu ditugun mesede guztiakgatik eskerik berezienaz emango diozkagu: eta *Letaia* ezezatuaz, guri laguntzen beti jaraitu dezala egegutuko diogu. (*Irugarren ordenako Arturo Gilerminena*).

*Eskaria*: ¡ O Maria ! ¡ Maria ! ¡ Maria ! eregu zazu nigatik, beartsu, naigabe tu, erbestetu arotz onegatik. (*Irugarren Ordenako Monteko Maisuarena*).

*Iritxi zadazu, Ama, bederatziuren onetan eskatzen dizudan mesedea.*



## Ama Birjiñaren Zeruratzeta koroatzeari. Bederatziurren labor bat.

### Lenengo eguna

*Gurutze santuaren etc.*

*Nere Jesukristo Jauna, etc.*

Ama Maria, (Espiritu Santuaren Esposa, orain zeruan gozaten dituzun atsegin oiezaz poztu zaitte, bada Aingeru ta Santu-Santuen koru guztiak baño gorago zaude eta beti egongo ere zera zeruan.

*Ama Birjinari bederatzi egunetan zuzentzeko goraltzak.*

I. Bedeinkatua izan bedi, o Maria, zure Seme maiteak zerura dei egin zitzun ordua. *Agur Maria, etc.*

II. Bedeinkatua izan bedi, o Maria, Aingeruak artu eta laztanduaz eta abesti gozoak kantatuaz zerura jaso zinduzten ordua. *Agur Maria, etc.*

III. Bedeinkatua izan bedi, o Maria, zeruko koru guztiak, korte danak, musika gozoak joaz bidera irten zitzuten ordua. *Agur Maria, etc.*

IV. Bedeinkatua izan bedi, o Maria, alako prestaera, onia ta goraltzakin zeruan artu zinduzten ordua. *Agur Maria, etc.*

V. Bedeinkatua izan bedi, o Maria, zeruan zure Semearen eskuialdetik jañi zinduzten ordua. *Agur Maria, etc.*

(VI.) Bedeinkatua izan bedi, o Maria, zeruan ainbesterañoko aunditasun ta gloriaz koroatu zinduzten ordua. *Agur Maria, etc.*

(VII.) Bedeinkatua izan bedi, o Maria, Zeruan Jaungoiko egiaz koaren Alaba, Ama ta Esposa bezela goratu zinduzten ordua. *Agur Maria, etc.*

VIII. Bedeinkatua izan bedi, o Maria, zerutar guztiak beren Éregiña aunditzat pozik ezartu, aitortu, ta agurtu zinduzten ordua. *Agur Maria, etc.*

IX. Bedeinkatua izan bedi, o Maria, Zeruan espiritu Doatsu guztiak ain gozoro-gozoro agertu zinduzten ordua. *Agur Maria, etc.*

X. Bedeinkatua izan bedi milabi der, o Maria, zeruan gupekatarion bitarteko guzierako ta bereziskoa jañi zinduzten ordua. *Agur Maria, etc.*

XI. Bedeinkatua izan bedi, o Maria, gu guziok gatik zeruan éregutzen asi ziñan ordua. *Agur Maria, etc.*

(XII.) Bedeinkatua izan bedi, baita miloileider, o Maria, guziok zeruan betiko artu naiko gaitutzun ordua zorionekua. *Agur Maria, etc.*

ŷ. Maria zerura jasoia izan zanean Aingeruak poztu ziraden.

R̄. Eta beren alabantzakin Jaungoikua bedeinkatu zuten.

### Otoitza

Éregutzen dizugu, Jauna, Zure mirabeai berak egin dizkizuten txarkeriak barka daiozkatzutela. Bederatziurien onetan guzian Amaren bitartez eskatzea dizuten mesedea iritxi daiozutela; gure lan eta zeregintzakin Zuri atzegin eman nai dizu-



gunok sekula guzietan bizi dan eta ereinatzen duan, Zure Seme Jaun Jesukristoren bitartez zerruratu gaitean. Amen.

### Bigarren eguna

*Gurutze santuaren, etc.*

*Nere Jaun Jesukristo, etc.*

Poztu zaite, Jaungoikuaren Ama goratua, eguzkiak mundu guziari argi ematen dion bezelazuk ere zeru guzia argi biziz eta apainduraz edertzen dezula ikustean, goratua, poztua eta atzegiñez betea izan zaiteala bada, Ama, zeruan betikolasun guztian. Amen.

*Ama Mariaren goraltza eta azkenengo otoitza lenengo egunean bezela.*

### Irugarren eguna

*Gurutze santuaren, etc.*

*Nere Jaun Jesukristo, etc.*

Poztu zaite, Jaungoikuaren Alaba goratua, zerutar guztiak Jaungoiko baten Alabatzak eza-gutu, aitortu eta gurtutzen zaituztela ikustean. Goratua poztua eta atseginez betea izan zaiteala zeruan betikotasun guztian. Amen.

*Ama Mariaren goraltza ta azkenengo otoitza lenengo egunekoak.*

## Laugarren eguna

*Gurutze santuaren, etc.*

*Nere Jesukristo, etc.*

Poztu zaite Espiritu Santu Jaungoikuaren Esposa paregabea, gorputzeko doai eta animako grazia mota guzietan zere burua ezin geragorano apaindua ikustean eta zerutar guziaz artakotzat zauzkatela eta goratzen zaituzteia jakitean. Gozatua, poztua eta atseginez betea izan zaiteala zeruan betikotasun guztian. Amen.

*Ama Mariaren goraltza eta lenengo egunean bezela.*

## Bostgarren eguna

*Gurutze santuaren, etc.*

*Agur Maria, etc.*

Poztu zaite, Maria, Irutasun Santuak, iru Persona jaungoikozkuak Jesukristoren gizatasunari bakarrik dagozkion graziazko malaraño alderatu eta zeru-lurretako beste izaki guztiak baño gorago jasorik maitatu, besar katu eta berengana baturik, beren doaiari eta grazia mota guzietan beste inor baño geiago du zaituztela eta doai oien emale eta zabaltzale zerori jañi zaituztela ikustean, poztu poztu. Soratua, poztua, eta atseginez betea izan zaiteala, Ama gozo-gozoa, betikotasun guztian zeruan. Amen.

*Ama Mariaren goraltzak eta lenengo egunekoak.*

## Seigaren eguna

*Gurutze santuaren, etc.*

*Nere Jesukristo, etc.*

Poztu zaite Prinzesa berdin gabea, zeruan zure Semea Aita betikoaren eskuialdetik bezela zu ere zure Semearen eskuialdetik eserita zaudelako, eta betikotasun guztian orela egongo zeralako. Goratua, poztua, eta atzegiñez betea izan zaiteala Ama laztan-lasztana betikotasun guzian zeruan. Amen.

*Ama Birjinaren goraltzak eta lenengo egunean bezela.*

## Zazpigarren eguna

*Gurutze santuaren, etc.*

*Nere Jaun Jesukristo, etc.*

Poztu zaite, pekatarien itxaropena, naigabetu eta atsekabetuen poz eta atsegiña, poztu zaite munduan agurtu, eta goratzen zaituztenak, Zuri egiazko eraspina, debozioa dizuten guztiak Ata betikoak munduan graziaz eta zeruan gorapenez, gloriuz ongi sarituko dituala jakitean.

Eta berakin guztiakin, goratua, poztua eta atsegiñez betea izan zaitea ala, Ama kutun kutuna, betikotasun guzian zeruan. Amen.

## Zortzigarren eguna

*Gurutze santuaren, etc.*

*Nere Jaun Jesukristo, etc.*

Poztu zaite Aita Jaungoikuaren Alaba Kutuna, Espiritu Santuaren Esposa laztana eta Seme Jaungoikuaren Ama gozo-gozoa, zeru luñetako eta beretako gauza guztien Eregin aundia zeru-gaietan dauzkazun aunditasun, indar, edertasun, aberastasun, aginpide jabetasun ta doai, Jaungoikuarenakin ia zerbai berdindu bezela egiten diran oiek guztiak, bein ere eta batere gutxitza-ke beti-beti betetasun oñetan edukiko dituzula jakitean, poztu zaite, poztu zaite.

Goratua, poztua eta atsegiñez betea izan zaiteala, Ama gozo-gozoa, betikotasun guzian zeruan. Amen.

*Ama Mariaren goraltzak lenengo egunekoak.*

## Bederatzigarren eguna

*Gurutze santuaren, etc.*

*Nere Jaun Jesukristo, etc.*

Poztu zaite eta pozaren pozez txoratu zaite Maria, koñedertore ta Bitarteko guzierako, eraren batean, Jaungoikuak zeruko atien giltzaen jabe, bertako grazia ta ondasunen jabe ta zabal-tzale egin zaituala ikustean. Luneko Eñege ta Enperadore, Erkaba ta Igarle guziaz baño askoz aundiago zerala eta zeruko Kerubin, Serafin ta Espiritu doatsu guziak baño gorago zandela, berak baño askoz aundiago eta altsuago zerala

zerutar guztiak. Jaungoikuaren ura beren buruzat, Erégiñatzat eta jabetzat pozik ezagutu eta artzen zaituztela ikustean, poztu zaite, poztu zaite gure Eregin aundia, Ama gozo-gozoa, poztu zaite.

Goratua, poztua eta atsegiñez betea izan zaitela ma laztan-lasztana, ta goza-gozoa betikotasun guztian zeruan. Amen.

*Ama Mariaren goraltzak.*





## Arantzazuko Andre Mariari Bederatzi-urrena

*Gurutze Santuaren...  
Nere Jesukristo Jauna...  
Bederatzi egunetan asieran irakurtzeko.*

*Otoitza.*

¡O Arantzazuko Andre Maria! 1469<sup>an</sup> Balzategiko Rodrigotxori agertu ziñaiozkan ezkerotik, or zaude Aloña mendian, arantza gañean, Euz-

kaleñiaren Ama ta Eregin erukitzu egiñik, Euzkaleñi guztiari, baña, era berezi batean, Gipuzkoari ortiz beren estutasunetan behiratu ta laguntzen diozu.

Or Euzkaleñiaren erdian jañirik, arantza zorioneko oñen gañetik; zenbat anima atsekabetu, gozatu dituzun! Zenbat eri sendatu, ta ilak berak ere piztu izan dituzun! Zenbat eskabideri zintzo ta gozoro-gozoro erantzun diezun!

Auñetiko ejemplo oiek adoreturik, ni ere gaur, orain banatorkizu Ama gozoa! ¡Banatorkizu Aita Santu, Obispo, Animen Artzai, Erlijioso ta eleizgizon guztientzat eskatzera. Bai, beretako bakoitzaren zeregin eta lanai dagokiten jakituri, zuzenlasun, zelo ta santutasuna iritxi dagiezula eregutzen dizut. España guztirako, baña, era berezi batean, Euzkal-erñ ta batez ere gere erñ onetarako lengo oitura zar onen iraupena; eta beste erñetatik sartzen asi diran txarñen galera. Gure erñ onetan indarkatu ta galduak izan ditezela oitura txar, pekatu ta bizio guztiak, eta zure bendizioaz indartuak berñiz oitura on, birtute eta santutasuna. Eta au gerta dedila era berezi batean nere anima onetan. Bai, Ama laztana, nik naizen guztia zearo zurea ta zure Semearena izatea nai det; zuen antzekoa, zuen izatea, santutasunaren usai gozoa banatzea nai det: Intezio ta griña txarñen kutzurik ere ez tet nai. Eta Bederatziurñen onetan lenengo eskatzen dizudan mesedea nere espirituko biziera obetzeko *indaña eta laguntza*.

Bigarñen eskatzen dizudana berñiz, arako mesede N. Ainbeste milari berak eskatua iritxi diezu askotan mirari aundiak egiñaz; eta Ama erukio-

fa, mesede au neri ez ukatu, ukatu etziñion bezela urango mirari au egin ziñionari.

### *Miraria*

1549<sup>ko</sup> neguan, sekulakoa, Arantzazun bein ere ikusi ez bezelako elurte ikaragarria izan zan. Fraieleai janariak aitu zitzaizten, eta etzegoan inundik eramaterik, inor ibili ezin zitekealako elurte ain aundiarekin. Erlijiosoak zer janik eduki ez arien, beren ezezo ta kantuetan, lenago bezela, jaraitzen zuten.

Onetan, Abenduaren 24<sup>an</sup>, gaberdiko kantu ta Mezan zeudela, galai gazte batek ekañi omen zien jana ugari, eta ezer esan gabe, janaria utzi ta eskutatu omen zan. Erlijiosoak emen ezagutu zuten beren Ama maite Arantzazukoaren eskua: bada beren gosea iltzeko janarekin galai itxuran zeruko Aigerua biraldu ziela, ondo sinistu zuten. Ama Mariak onelako ardurarekin begiratzen zien bere mirabe leial Franziskoren Semeai elurte, otz, bero, goze ta ezbiañik aundienetan arkitu arien bein ere etziran aldentzen beren Ama ta Eregiña laztan-aren ondotik, zer janik eduki ez arien ere, beren Ama eduki ezkeru aintxe jaraitu zuten eta bertan jaraitzen dute 1514 kotik onarabitar-tean, beren Ama gurtutzen; eta beren maitetasunari Amak, ala bear zanian eta danian, mirariakin erantzuten die.



*Bederatzi egunetan, miraria irakurri ondorean,  
erezatu bost Agur Maria, eta irakurri urengo*

### *Otoitza*

¡O Arantzazuko Ama Birgiña ¡Ama biotz biguñeko bat bezela animen estutasunetan kupitzen zera, beren negar ta eskabideak aditzen dizkiezu, eta askotan, naiz ta mirari aundi bat egin bear izan ofetarako, eskatzen dizuten mesedea iritxi egiten diezu, beren animaren kalterako ezpada, aitatu degun mirari onetan ikusten dan bezela. ¡Zenbat eskari eta zenbat erakoak egiten dizkitzuten egunero egunero! Batak eskatzen dizu begietarako ikusmena; besteak, burutako eza-güera on eta argia; onek, oñak sendatzea; arek, konzienziako arã kentzea; animaren garbitasun ta pake osoa iristea; eta asko eta askok, itxaso-ko olatuen ta gudako balen tartean, eta eritasunik aundi ta txarñenetan bizirik ateratzea: eta batzuetan eskatu izan dizute ilak berak piztutzea. Eta zuk, biotz biguñeko Ama gozo orek, askotan mirari aundiak egiñaz, iritxi izan diezu eskatzen zizutena. Zenbati, Ama laztana, zenbati negar malkoak legortu eta biotz atsekabetuak gozatu dizkiezun!

Orain bada zure ontasun ori, mirari orietan ain ongi ikustean, deabruaren burua zapaldu ta purukatu zuten zure oin bedeinkatuetan auzpezturik, arizkatzen natzaitzu ni ere fede bizi batekin eskatzen: 1. Nere animarentzat grazi ugarriak, eriotza on bat eta betiko zerua. 2. Bederatzi-uren onetan eskatzen dizudan mesede N. N.

eta. 3. Neretzat zure Amatasun betikoa; zaindu nazazu gau ta egun ta leku guztietan, Ama bategen bere semetxoa zaitzen duan bezela; zaindu nazazu erori ez nadin, aldendu ez nadin zerubidetik; Zure eskutik artu ta eramanez nazazu zeru edeñera, betikotasun, guztian an gurtu zaitzadan. Amen.

### Bigarren egunerako Miraria

Bizkaiko Deusto deritzaion eñian, 1560<sup>an</sup> mirari au egin zuan Arantzazuko Ama Birjinak. Franziska Garagarza zeritzaion donzela gazte bati, okaran gañetik luñera erortzean, okaparranpeko olasi punta soñotz bat sartu zitzaion eskuiko zaietsetik eskeñekoraño. Min ikaragañi ta estutasun ain aundian, Arantzazuko Ama Birjiñari dei egin zion, ta, gauza miragañia, eskuakin artu ta indañian olasia ateratzean ziara sendatua gelditu zan. Gero olasi ura eskuan artu ta Ama Birjiñari eskeñak ematera Arantzazura juan zan. Egur ura urtetan, Arantzazun egon zan, baña gero komentua su artu zuanean, beste oroipengañi askorekin batean ura ere auts biurtu zan.

### Irugarren egunerako Miraria

Pierre, Vokal jauna, Pranzia-ko Ziburu'n jaioa, beste 33 itxasgizon bere agindupekorekin Teñanobatik beren ontzian zetozeela, etsaien zazpi itxaz-ontzik erdian arturik, ontzi ta ontziko guztiak preso artu zituzten. Beren iritzirako guztiak galduak ziran. Estutasun artan Arantzazuko

Ama Birjiñari laguntza eskatu zioten, aginduaz, estutasun artan etsaien atzaparetatik bizirik eta ongi ateratzen bazituan, eskerak ematera Arantzazura jungo zitzaizkiola. ¡Eta gauza miragaría! Ez bakarrik olatuen artetik baita ere etsaien atzaparetatik atera zituan bizirik, gañera era miraritsu batean, egun askoko biaje luzea, ordu gutxitan igaro eraziaz, beste mirari ta mesede aundi bat egin zien. Ogeitamairutik iru bakarrik etsaiak artu ta preso sartu zituzten, eta iru egunean ezer jaten eman gabe eduki zituzten. Iru gañen egunean Arantzazuko Ama Birjiñak presondegian berai agertu, artu, atera eta era miraritsu batean bereala beren etxetaratu zituan.

### Laugañen egunerako Miraria

Alonso Mendia, Orioko semea, beste 22<sup>rekin</sup>. olio betetako ontzi batean zijoazela, ekaitz ikaragarri batek galtzeko ariskuan jañi zituanean, Ama Birjiña Arantzazukoari laguntza eskatu zioten, ta Ama onek berealasean itxasoa bareturik ederki etxeratzeko modua egin zien.

### Bostgañen egunerako Miraria

Felipe Segura, Orioko semea eta beste 12 itxasgizon batel batean zijoazela, iltzeko ariskurik aundienetako batera iritxi ziranean, Arantzazuko Ama Birjiñari eskatu zioten laguntza, eta

Ama erukitsu onek itxasoa bereala bareturik, ederki etxeratzeko modua egin zien.

Era berean, 1609-ko Azoroaren 17 an, 18 Donostiar ta Pasaitar, ontzi ta guzti itxasoak iren-si bearian estu zeuzkanean Arantzazuko Ama Birjiñari laguntza eskatu zioten; eta Ama gozo onek berai ontzira agertu, eta ilunpe artan argi egiñik, txit ongi luferatu zituan.

Eta onela daude beste mirari asko Arantzazuko Ama Birjiñak itxasgizonen alde egiñak.

Arantzale ta itxasgizon guztiok, zuen estuasunetan, lenagokoak bezela, zuek ere Ama Arantzazukoari laguntza eskatu, eta itxasoko estutasunetan berak lagunduko dizute.

### Seigarren egunerako Miraria

Ama Birgiña Arantzazukoak itxas gizonen eskabideak bezela luferkoenak ere aditzen ditu. Aiei bezela abei ere beren estutasunetan eskua luzaturik laguntzen die, ala bear bada mirari aundiak egiñaz.

Arabako Samaniego deritzaion erian, 1602 ko Uztalañen 2<sup>an</sup>, egin zuan bezela. Eri onetako Andre Maria Saensi alaba bat il zitzaion egun artan: eta Ama onek, negar malkoak zeriozkala, Ama Birgiña Arantzazukoari bere alaba ura piztutzea eskatu zion, eta, gauza miragaria; berealase pizturik amari ezaten dio: *Dama eder bat, Ama Birgiña Arantzazukoa agertu zitzaiola, eta ongi jari zuala.*

Urte artan berean, Arabako Aroiabe'n andre Katalina Gonzalezi alaba bat il zitzaion, eta

amak negaíez Ama Birjiña Arantzazukoari alaba piztu zeiola eskatu zion: eta alaba bereala piztu ta sendatua gelditu zan, eta andik auíera izen goitiz esaten zioten *Arantzazuko Ama Birjiñak piztua*.

### Zazpigaíren egunerako Miraria

1610 ko Agoíaren 17<sup>an</sup> *Migel zeritzai'on Oñatiko gazte bat Arantzazuko Sindika ondotik beko érekaraño amilka erori zan; Nola erori zan Erlijiosoak ikusi zuten, eta, íla topakuto zutelakoan bereala jetxi ziran érekondora, baña esertxo ere egin gabe topatu zuten. Bada mutil gazteak erortzeko unean bertan Ama Birjiña Arantzazukoari laguntza eskatu omen zion: eta Ama onek benetan lagundu zion ainbeste bidean arkaitzartean, ari bat bezela jun eta éreka zuloan ezertxo ere min eta okerik gabe arkitzeko.*

1661<sup>an</sup>, Petronila Agiriano, Eibartaía, urtebian eri egon ondorean, burutik egin da gelditu zan; eta bere amak artu ta Arantzazuko Ama Birjiñaren auíera eraman orduko, beriala etoí zan bere ezagüera osora.

1698<sup>an</sup>, Luisa de la Palza, Zumaíagakoa, oñetatik txit galdu ta makulo edo makila bi gabe pausorik eman ezin zuana, bere gaitzarentzat éremedioa iristeagatik Arantzazun Bederatzüíren bat egitean, bereala ziara sendaturik, etxera ongi biurtu zan.

## Zortzigarren egunerako Miraria

1656<sup>an</sup>, Azkoitiko gazte bat, lau urte aietan mututua arkitzen zan, eta juatean Ama Birjiña Arantzazukoarengana, itza eskatzera, bertako eleizako atetan sartzen asi orduko itz egiten asten da.

Era berean, *Lenizko* emakume bat bere etxe-koak Arantzazura eramateko asmoa artu zuten unetik, itz egiten asi zan. Eta onelako beste askori Ama Birjiña Arantzazukok itzan eman die.

1661 ko. Martxoaren 26<sup>an</sup>, Arabako Urarte deritzaion erian, Ana Pangoa, aurtxoa, jostatzen zebilela putzura erori ta ito zan: Bere amak negaiez Arantzazuko Ama Birjiñari bere alabaxoa piztutzeko esan edo eskatu zion, eta Ama Birgiñak bereala piztu zion.

Arantzazuko Ama Birjiñak aur eske jun izan zaizkon emakume askori, bereala aurdun gelditzeko suertea iritxi izan die. Maria Josefa Murua, Bergaraña; Maria Plazaola, Legazpiaña; Grazia Garin, Seguraña, eta beste askok ezkondu ta urtetan aurik izan etzutenak, Arantzazuko Ama Birjiñaren bitartez iritxi izan zituzten ainbeste nai zituzten aurak.

## Bederatzi-garren egunerako Mirariak

1920-ko Agoñaren 9 an, Zarauzko Santa Kla-

rako Komentuan, Arantzazuko Ama Birjiñak mirari au egin zuan.


*Sor Iñazia de Santa Inés*, lega bat denboraletxo batean burutik debildu eta nastua gaizki zebilen, Mojak kupiturik, bere ondo ez arekin, berari osasuna iritxi nairik, Ama Birjiña Arantzazukoari Bederatzi-urén bat egitea erabaki zuten: eta bene-benetan berarentzat osasun betea eskatuaz, Agoía-ren 1-tik, 9ra egin zioten, eta kederatzi gañenean, Ama Birjiña Arantzazukoaren egunaren aratsaldean, baturik zeuden Moja danen aurrean belaunikaturik esan zuan Sor Iñasiak:

Ama Birjiña Arantzazukok mesederik aundienetako bat oraintxe egin dit; bada nere eritasun guzia ziario kendu ta osasun bete-betea eman dit. Eta guztioi ematen dizkitzetet esker gozoak zuen Bederatziurénarekin onelako osasun edeña iritxi dirazutelako. Eta orduan bereala Moja danak beren komentuan, begien aurrean ikustean alako miraria, pozez beterik Ama Birjiña Arantzazukori esker gozoak eman ziozkaten.

Añezkeroko iru urte abetan Sor Iñazia beti dabil ongi. Eta berak eta komentuko Moja guztiaz gaur ere aitortzen dute Ama Birjiña Arantzazukoak orduan egin zien mesedea.

Bederatzi-urén onetan aitatu ditugun mirari abezaz gañera beste asko ta era askotakoak Ama Birjiña Arantzazukoak lenago eginda-koak, bere kondaira luzetan irakurtzen dira; eta *orain azkenengo urte abetan egiten dituan batzuek beriz « Arantzazu » deritzaion aldizkingi edo rebistak ekartzen*

*ditu. Arantzazuko gertaldi asko dakarzkialako Euzkal-efico familiarik geienetan artu bear-lukete Arantzazun bertan argitaratzen dan *Rebista* eder au.*







IDAZTITXO ONEK DAUZKA  
ZAZPI BEDERATZIURREN

---

Jesusenak BI, 2.<sup>ean</sup> eta 22.<sup>ean</sup> Ingozkietan.  
Eta Ama Mariarenak BOST, 28, 36, 45,  
52 eta 66 renekoetan.